

# ARGIA

“Bahitu politiko gisa erabiltzen ari dira presoak, prozesu subiranista zamatzeko”

**Arkaitz Rodriguez**

Sortuko idazkari nagusia

24-29. orriak

#2.767 | 2022/02/20 | 4,00 €



**15 minutuko hiria: kalea hiltzeko makina berria**

12 | NET HURBIL



**“Zaila da musika ofizio bat dela ulertaraztea”**

14 | LEIRE VILLANUEVA 'ISEO'



**Apokalipsia nola kontatu film baten bidez**

44 | ZINEMA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** #271  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



# INTERSEXUALAK

**MEDIKUNTZAK EZABATURIKO GORPUTZAK**

[ARGIA.EUS/LARRUN](http://ARGIA.EUS/LARRUN)

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:  
DANI BLANCO

## Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | JON ALONSO
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | JOXERRA AIZPURUA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 41 | ARGIAREN KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: MARIA FRANCISCA MAS
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



### 38 | **ESKLABISTA ETZANDA**

Ingalaterrako Bristol hirian pintadaz josi, eraitsi eta putzura bota zuten Colston esklabistaren irudia. Geroztik, prozesu parte-hartzaile baten bidez herritarrei galdetu diete zer egin behar den itsasotik atera zuten irudi horrekin. Axier Lopezek erreportajea jaso ditu bristoldarren jarrera ezberdinak, eta prozesua bera Euskal Herrirako baliagarri izan daitekeela azaldu du.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Hemen dator Gorilas, kalea hiltzeko makina berria

Pello Zubiria

14 | PERTSONAIA | LEIRE VILLANUEVA

### “Sentimenduekin lan egiten duzunean pertsonengan zerbait eragiten duzu”

Reyes Ilintxeta

24 | POLITIKA | ARKAITZ RODRIGUEZ

### “Bakeak etsai boteretsuak ditu oraindik”

Lander Arbelaitz

30 | OSASUNA

### COVID luzeena

Alfons Rodríguez

34 | E. ZUBIAURRE | TXERTOAK KALTETUA

### “Txertoa hartu eta ia urtebetera, oraindik ez naiz gai bizitza normala egiteko”

Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA

### Munduaren bukaera film baten bidez

Ainhoa Gutierrez

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Lehendakaria

Onintza Irureta

#### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

**aniza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



# Makro

“Errentagarritasun handiena, kosturik txikienean”. Hori da makroetxaldean lelo nagusia. Kostua bizitza bera da. Jaiotzetik hil arte, dozenaka milaka bizidun gatibu eta pilatuta. Fabriketan azkoinak sortzearen pare hartuta, ez dira nor, zer baizik. Horregatik deitzen diote “abelazkuntza industrialia”. Planeta honetan bizi garen guztion osasunaren aurkako eredu suntsizaileria. Pandemia izan omen da gobernuen ardura handiena, baina genetikoki oso antzekoak diren milaka norbanako pilatuta edukitzea askotariko birusak zabaltzeko ingurune egokiak direla jakin arren, makroetxaldeen hedatzen jarraitzen dute, 5.200 behi dituen Nafarroako Kaparrosokoa kasu. Irudian: Gaztelako Iscar-en 133.000 oilo hil dituzte pasa den astean. Zonalde hartan 10 kilometro koadroan 1.114.120 hegazti gatibu dauzkate makroetxaldeetan.





# EAEko Hezkuntza Lege berriaren abiapuntua

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**E**Aeko Hezkuntza Lege berriaren abiapuntu izango den hezkuntza hitzarmenaren zirriborroa aurkeztu dute. Sare publiko nahiz itunpeko, “ikastetxeak eskubidez eta betebeharez parekide” bihurtzea, euskara ardatz izanik testuinguru soziolinguistikoaren arabera hizkuntza proiektuak garatzea eta segregazioari aurre egiteko Tokiko Hezkuntza Kontseiluak sortzea proposatzen du zirriborroak.

Hezkuntza komunitateko eragileen 100 agerraldi entzun dituzte alderdi politikoek, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean. Helburua, Iñigo Urkulluk udazkenerako iragarri duen EAEko Hezkuntza Lege berriaren oinarriak jartzea, alderdien artean hitzarmen bat adostuz. Hitzarmen horren zirriborroa aurkeztu du Hezkuntza batzordeko buruak, eta pare bat aste dituzte alderdiek, euren ekarpenak egiteko.

## EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZUA SORTUKO DA

Sare publikoak eta itunpekoak osatzen duen sistema duala gainditzea izan da hasieratik jarritako helburu nagusietakoa. Horretarako, batzuek eskatzen dute itunpeko ikastetxeak publikatzea, eta besteek berriz, betebeharrak batzuei erantzuten dien ikastetxe oro legean integratzea –eta diru publikoz %100 finantzatzea–. Bigarrenaren alde egiten du hitzarmenaren zirriborroak, Euskal Hezkuntza Zerbitzua delakoa sortuz: “Euskal Hezkuntza Zerbitzua osatuko dute legeak ezarritako printzipio eta helburuak betezen dituzten ikastetxeek, legeak ezartzen dizkien konpromiso eta betebeharrak beren gain hartzen dituztenek”, dio. Are, programa-kontratua aipatzen du. “Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin adostutako Plan Estrategikoaren jarraibideak burutzeko tresna” izango da programa-kontratua.

Ikastetxe bakoitzaren proiektu edo programa Administrazioak finantzatuta, “doakotasun erreala bermatuko du Eusko Jaurlaritzak, eskolaratze-kuotak desagerraraziz”.



## SISTEMA ELEANIZTUNA

Gaur egun dauden A, B eta D (murgiltze) ereduak gainditzea ere izan da eztabaidagai. Ereduak ez ditu aipatzen dokumentuak, ezta murgiltze ereduaren alde egiten denik ere –hainbatek eskatu moduan–. Horren ordez, euskara ardatz duen sistema eleaniztun bat proposatzen du, helburu garbiarekin: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean bi hizkuntza ofizialak menderatzea, eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar beste ezagutzea. Hori lortzeko proposamena, “ikastetxe bakoitzaren inguruaren berezitasun soziolinguistikoak kontuan hartuko dituen” proiektu linguistikoak garatzea.

## SEGREGAZIOARI AURRE EGITEKO, TOKIAN TOKIKO ERABAKIAK

Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren –eta ondorioz legeak zehazturiko eskubide eta betebeharren– barruan egongo diren ikastetxeei hainbat konpromiso eskatuko zaizkie, eta horien artean dago “ikastetxeetako ikasleen arteko desorekak gainditzea”. Eskola-mapa aztertzeke eta egokitzeke beharra nabarmentzen da.

Besteak beste, kogobernantza aipatzen da, udalek izan dezaketen rola eta hezkuntzari lotuta izan ditzaketen es-

**Sare publiko nahiz itunpekoa, betebeharrak batzuei erantzuten dien ikastetxe oro legean integratzea eta diru publikoz %100 finantzatzea proposatzen da**

kumenak azpimarratuz, eta aipatzen da udalek bereziki eginkizun sakona hartu dezaketela “matrikulazio prozesuan, onarpen protokoloak familiengana hurbiltzeko, azpiegiturak indartzeko, elkarbizitza sustatzeko, kohesioa bultzatzeko sareak sortu edota elikatzeke, euskararen erabilera sustatzeko eta, azken batean, eskola komunitatea sendotzeko”.

Ildo horretan, Tokiko Eskola Kontseiluak sortzea proposatzen da. Kontseiluari kontsulta egingo zaio honako jardunetan: “Hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea; hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatzeko orekatua bermatzen laguntzeko neurriak hartzea; eta udalerrria eremu duten patronatuak, partzuergoak eta hezkuntza-erakundeak eratzea”. ●

# Mundu zaharra berritzea



ARITZ GALARRAGA

**G**izakiaren lagunik onenak izan daitezke zakurrak, noski, katuak, perikitoak, are, kasu batzuetan, beste gizaki batzuk ere. Nire kasuan dira, dudarik gabe, liburuak. Beti daude laguntzeko prest, ez zaituzte inoiz abandonatzen, ez dizute trukean gauza handirik eskatzen –tarteka hautsa kentzea, besterik ez-. Liburuak dira, sarri, egiazko konpainia noblea. Eta, “lagunak, gutxi eta onak”, beste gizaki batzuekin gertatzen ez zaidan moduan, liburuekin bai, liburuekin lasai asko praktika dezaket gehiegizkotasuna, neurrigabekeria. Ez naiz bakarra.

Gogoan izango duzue Alexandro Handia, Alexandro Mazedoniakoa, edo soilik Alexandro, haren buruan jaio baitzen liburutegi unibertsal bat sortzeko ideia. Irene Vallejak kontaktzen digu, xarmanki, *Infinitua ihi batean* liburuan, hain justu, liburuaren asmakuntzari eskainitako lanean. Liburutegi absolutu eta perfektua osatzea zen ametsa, denboren hasiera-hasieratik aurrerako egile guztien lan guztiak bilduko zituen bilduma. Mundua konkistatzera dedikatu baitzen Alexandro, garai hartan greziar batek ezagutzen zuen mundua, baina *Iliadaren* ale bat zeramala ibili zen Afrikako eta Asiako bideetan barna. Vallejoren hitzetan, existitzen diren liburu guztiak biltzea munduaren jabe egiteko beste modu bat da, “modu sinbolikoa, mentala, baketsua”. Hala-xe abiatu zen Alexandriako Liburutegi Handia.

Liburuak biltzetik beste hainbat gauza biltzera egiten du salto ez jende gutxi. Miguel Sanchez Ostizek, adibidez, *Viaje alrededor de mi cuarto* lanean azaltzen duenez, non egiten duen bizitza oso batean pilatutako liburu, objektu, oroitzapenen inbentarioa. Ariketa arriskugarria izan daiteke, halere, pasio orok kaosarekin egiten baitu muga, zioen Walter Benjaminek, eta bildumatzearen kaosak oroitzapenen mugekin. Mundu zaharra berritzea baita, Benjaminen arabera, bildumagilearen desiorik sakonena. ●

KANPORA  
GURE  
EREMUTIK!

EDOZEIN DELA ERE...



ADUR

## Zientzia

Bizkarrezur-muina estimulatzeko duen inplante bati esker, paralisi osoa zuten hiru pertsona lehenengo egunean bertan ibiltzen, bizikletan eta igerian jarri ditu teknika berri batek. Paraplegikoei esperantzaren atea irekitzen dien teknika Suitzian aurkeztu dute.

## AHT

2030a aurretik Gasteiz eta Iruñea arteko AHTren tartea eraikitzeko aurreikuspenik ez dagoenez, halakorik ez eraikitzea proposatu du Europako Batzordeak. Berriaren harira, AHT Gelditu! mugimenduak adierazi du abiadura handiko tren gelditzea oraindik posible dela.

## EA

EAKo Nazio Batzorde Eragileak erabaki du lau urtez Maiorga Ramirez, Iratxe López de Aberasturi, Mikel Goenaga, Miren Aranoa eta Esther Korresen afiliazioa bertan behera uztea, “eskubide, betebeharrak eta diziplina araudiaren urratze larriak egin dituztelako”. Irailean ireki zieten prozesua.

# 1.000 euro



ULA IRURETAGOIENA

**H**ilabetean zenbat diru behar duzu bizitza duin bat eramateko? Erantzunaren bilaketa gatazkatsua gerta dakiguke, beharrezko duguneko kontradikzioz beterik azaldu dakigukelako, bizimodu eta kontsumo ereduaren arrakalak irekitzera tentatzen eta etorkizunari begira jartzen gaituelako. Indibidualki galderari erantzuteko zailtasunak badaude, pentsatzen dut politikariak gutxieneko diru sarrera duinaren zenbatekoa ezartzeko garaian –enpresariaren negoziaketa mahaira eramateko–, buruhauste handiak izango dituztela, bizi-baldintza duinaren eta lan-soldataren arteko lotura justu bat egin nahi bada, bederen.

Kasuistika zabala denez, soldataren finkapenak ñabarduraz josita egon beharko luke. Ze ez da gauza bera Murtzian edo Donostian bizitzea, zaintzapean norbait izatea edo ez, gaixotasun kronikoren bat pairatzea zeinak medikalizazio bat behar duen, edo herentzia handi baten esleiduna izatea. Denok ez dugu diru behar berdina bizitza duin bat aurrera eramateko. Enpresariarekin gutxieneko soldata finkatzearekin batera, beste hainbeste baldintza gainbegiratu behar dira: elektrizitatea, gasa, ura, hiri-zergak eta garraio publikoaren prezioek finkatzen duten egunerokoaren gastua, osasun publikoaren babes-maila eta zaintza lanek ekonomia zirkuituan duten pisua. Bestela, tranpa egitea da.

Eta tranparen parte ere bada etxebizitza higiezinaren merkatuaren egoerarekin batera ez eragitea. Etxebizitza aferak ertz asko dituen arren, muina zera da: etxebizitza espekulatzeko tresna bilakatzeko dela, negozio edo inbestitze-leku, eta sistemak –errenta aitortpeneko onurak, udal plangintzako arauak, fiskalizazio ezak– babes ematen diola. Hirian eta lurraldearen gain sortu daitezkeen enpresariarentzako diru-onurak ondo egon daitezke, baldin eta interes orokorrak neurriko itzulpenik badu, eta ekuazioan testuinguru sozial eta naturalaren gaineko ondorioak kuantifikatzen badira. Soldata baten prezio-duintasunak gizarte baten ereduaz hitz egiten duelako. ●



## Naturak sortzen ez duenean...

**JON TORNER ZABALA**

**1**980az geroztik baliatu da elur artifiziala Neguko Joko Olinpikoetan, baina Pekinen aurreneko, eski pista guztiak egin dituzte hamaika kanoiek ponpatu duten hauts zuriekin. Izan, Txinako zonalderik lehorrenetakoan baitaude Yanqing eta Zhangjiakou mendikateak. Ez du elur askorik egiten, ez behintzat eskian aritzeko adina, baina Txinaren hautagaitza hobetsi du COI Nazioarteko Olinpiar Batzordeak, proiektuak “ingurumen estandar guztiak errespetatzen dituelako”.

Duela zenbait hilabete, antolatzaileek jakinarazi zuten 186.000 metro kubiko ur beharko zirela eski pistak egiteko. Aldiz, hainbat adituk –Carmen de Jong Estraburgoko Unibertsitateko Hidrologia irakasleak tartean– ohartarazi du litro kopurua bost bider handiagoa ere izan daitekeela, besteak beste, aipatu mendietan Alpeetan baino bi edo hiru bider ur gehiago behar delako, baldintza klimatikoak direla-eta. Halaber, elur artifiziala fabrikatzeko ur hori guztia kilometro ugarira dauden ur-biltegietatik eraman behar da. Eta Pekin, herritarren beharrak asetzeko nahikoa ur gordetzerik ez duenez, Hegoaldetik ponpatzen den uraren menpekota da geroz eta gehiago.

Aipatu bi mendikateak Songshan natura-erreserban daude. Carmen de Jong hidrologoak azaldu duenez, Joko Olinpikoen aitzakian 1.100 hektarea deuseztatu dira (eremu osoaren %25 inguru), eski pistak, errepideak, heliportuak edota aparkalekuak egiteko. Kirol-eremuraino doazen bide batzuk ere elur artifizialarekin estali dituzte, makinak-eta pasa daitezten.

Txinako kasuak agerian uzten du klima aldaketak eragina (izango) duen moduan kirol diziplina batzuen, kirolak eragina (izango) duela ingurumenean. Hamaika dira bi norabidetan doazen adierazleak, Joko Olinpikoak hartzen baditugu adibide gisa: elur artifiziala labainkorragoa da naturala baino (eskiatzaile batzuek adierazi dute abiadura handiagoa hartzen dutela), zirkuitoak laburragoak dira (elur gutxiago baliatzearen) eta hortaz bihurtu gehiagorekin (kirolariak elkar enbarazu egiteko arrisku handiagoa), ur kopuru erraldoia behar da pistak egiteko, estazioek kontsumitutako energiaren erdia baino gehiago elur artifiziala sortzera bideratzen da...

Elur artifiziala, belar artifiziala, olatu artifizialak... Kirola praktikatu nahi dutenentzat, edo praktika horri etekina atera nahi diotenentzat, gisa horretako azpiegiturek abantaila handiak eskaintzen dituzte. Ez dute zertan kalterako izan, baina ikusten dituzu Txinako paraje idorretako eski pistak eta... ●



60

biktima eta 31 erasotzaile identifikatu dituzte Nafarroan, Eliza Katolikoaren baitan jazotako sexu erasoei dagokienez. NUPen ikerketa talde batek 1948 eta 1985 arteko kasuak azaleratu ditu eta "izebergaren punta" baino ez direla azpimarratu dute.

%63

izan da Trebiñuko abstentzioa, Gaztela eta Leongo hauteskundeetan. Beste zonalde batzuetan baino nabarmen handiagoa izan da abstentzioa, Trebiñu Araba dela argi utziz.

10

hilabeteko atxiloaldiaren ostean, Israelek aske utzi du Juani Rishmawi Palestinako laguntzaile humanitarioa. 301 egun egin ditu preso eta jasan behar izan ditu aislamendua, galdeketa etengabeak eta kartzeletako leku-aldatzeak.

*"Gazteak erreta gaude. Bada ordua errauts horietatik su berriak piztu eta horiek hauspotu, indartu eta hazteko. Alternatiba propioak sortzen jarraituko dugu"*

#### ALGORTAKO GAZTE TALDE BAT

Gaztetxe gisa erabiltzeko Algortako dozenaka gaztek eraikin bat okupatu eta gutxira, gaztetxea hustu du Ertzaintzak.

**HIRUKA (2022-02-12)**



**"IKASKETAK EUSKARAZ EGITEN ARI DIREN IKASLEEK AZTERKETAK EUSKARAZ OSOKI EGIN DITZATEN FRANTZIAKO ADMINISTRAZIOAK PARATZEN DITUEN TRABAK ONARTEZINAK DIRA"**

#### EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindiak gutun bana igorriko die Frantziako presidenteari eta Hezkuntza ministroari, eskatuz brebeta eta baxoa euskaraz segurtatzeko urratsak eman ditzaten.

**2022-02-03**

*"Petrolio-praktikek berezkoa dute kutsadura, zulaketa-putzutik hasi eta plastiko, gasolinc diesel itxurako azken produktuetaraino"*

#### MARC GAVALDÀ

Repsolek La Pampilla findegian egindako petrolio isuri batek Peruko historiako tragedia ekologikorik handiena eragin du. Petrolio-jardueret aditu den Gavalrà elkarriketatu dute.

**LA DIRECTA (2022-02-04)**



# Nagusiak eta diruaren bilakaera



DIANA FRANCO

**A**zken asteetan, pertsona nagusiek salatu dute digitalizazioa dela-eta euren dirua fisikoki izateko aukera murriztu dutela bankuek, kutzazainak kendu ahala. Dirua fisikoki eskuratzeko aukera bueltan nahi dute. Nagusiak dirua bankuetara eroaten hasi ziren garaian, bankuek betiko ziruditen, hor betiko egongo ziren marmol eta egur bitxiz eraikitako instituzioak ziruditen, harremanak argia zirudien. Egun, ordea, bankuak euren arreta fisikora bideraturiko baliabideak txikitzen joan dira pixkanaka, digitalizazioak aurrera egin duen heinean. Hasieran ordutegien murrizketa izan zen, gero pertsonen murrizketa, eta azkenik kutzazainak eta sukurtsalak pixkanaka-pixkanaka desagertzen ikusi ditugu gure herrietatik. Zenbait pertsonak, ordea, ez du eremu digitalaren bideetara egokitzeko beharra ikusten, edo ez du bertara egokitzeko erraztasunik, edota nahiz eta aldaketa ulertu, ez du sustatu nahi. Instituzioak sortzen lagundu zuten nagusi horietako asko dira gutxieneko batzuk mantentzeko aldarrikatzen ari direnak. Jaramon egingo dietela dirudi. Baina uste dut, egunero ikusten ditudan jokabideengatik, diruaren desagertzea atzeraezina dela.

Zenbait nagusik ez du nahi dirua erabiltzeko moduen aldaketetara eta bankuen negozio eredu berrietara egokitu, baina beste aldea etorri zait burura: gehienok egokitu egin gara. Beharbada, alde positiboan distirak liluratuta, ez dugu gertatzen ari denaz gehiegi pentsatu.

Historian zehar dirua aldatzen joan da: gatz, kakaoa, urrea, papera... Baina ez soilik forman, dirua bera ulertzeko moduak aldatu dira, bitarteko izatetik helburu izatera igaro da kasu askotan. Azken hamarkadetan fisikotasuna zelan joan den desagertzen ikusten gabilta: ordainketa aplikazioak, txartelak, online ordainketa pasarelak... eta orain kriptotxanponak. Azken batean, datuak dira egun diruak duen forma. Ez dut oso argi zein eragin izango duen gure bizitzetan aldaketa honek, dirua behin betiko datu bilakatzea. ●



Obrador 2018ko hauteskunde kanpainako ekitaldi batean. EFE

## Nazioartean uso, etxean...

AXIER LOPEZ

**M**exikoko presidente Andrés Manuel López Obradorrek Espainiarekiko harremanetan "eternaldia" egitea proposatu du, urte luzez enpresa espainolek konkistatzaileen antzera jardun dutelako, botere politikoaren babesean. Atsedendaldi bat alde-biko harremana normalizatzeko, Mexiko konkista-lur gisa ikus ez dadin. Hala ere, berehala argitu du "planteamendu publikoa" dela, eta ez "adierazpen diplomatiko formal". Hau da, ez dela ezer aldatzen, dialektika hutsa besterik.

Repsol eta Iberdrola Espainiako enpresen praktika mafiosoen adibide gisa jarri ditu Obradorrek. Vicente Fox eta Felipe Calderón presidenteen agintaldietan, "kalte larriak eragin zizkioten Mexikori, baina negozio boro-bilak izan ziren haien zatitza".

Hala, mezu aldetik, Obradorrek jatorrizko herriekiko errespetuzko irudia eskaintzen jarraitzen du, neokolonialismoarekiko kritikoa. Baina...

### INBADITZAILEA ERE ETXEAN DAGO

1990eko hamarkadaz geroztik, multinazionalen nagusi den ikuspegi imperialistak posible egin ditu (nagusiki, Espainiako) enpresen gehiegikeriak Mexikon eta Abya Ayalako gainerako herrialdeetan. Baina "Amerikaren birkonkista" delakoa gauzatzea ezinezkoa zitekeen tokian tokiko agintarien ustelkeria eta politika interbentzionistarik gabe.

López Obrador 2018an boterera iritsi zenean, indigenen mugimenduko kide asko ofizialismoaren lerroetara

pasa zen, hamarkadetan betikotu den "governua = zapalketa" bikotea aldatzeko ilusioz. Hala ere, horrek ez du aldaketa nabarmenik ekarri herrien autonomiaren eta erabakitze eskubi-dearen aitortzearen. Horregatik, zapaltistak oso kritikoa dira Obradorrekin.

"Herri indigenak Mexikoren herentzia kulturalaren funtsezko partetzat" hartzen ditu Obradorren gobernuak. Areago, nazionalismoaren ohiko diskurtso paternalista horri segituz, herri horien izenean hitz egitera ere heldu da Obrador, adibidez, Espainiako Gobernuari barkamena eskatzea gomendatu zionean, konkistaren 500 urteetan kolonialismoak eragindako ondorioengatik.

Politika bertikal eta desarrrollistari segida eman dio. Mexikoko herri indigenen bizitzan eta lurraldean ondorio nabarmenak izango dituzten hainbat megaproiektu ditu esku artean Obradorrek. Horietako bat da Tren Maya megaobra. 1.554 kilometroko trenbidea, Yucatán Penintsulako gune turistikoa nagusiak lotuko dituena, lurralde-berrantolamendu sakona eraginez. Eskualde txiroak izateari uzteko erreza, beste behin ere, lehen mundutik turistak ekartzea da. Eta, noski, turismoa bai, baina oraingoan "jasangarria".

Jatorrizko herrien autonomia onartzen du ezkerreko gobernuak txostenetan edo kamera aurrean, baina beti ere, estatuko megaproiektu estrategikoen garapenari eragiten ez badio. *Washing* ariketa bat, "Euskadi Auzolan" honetan abiadura handian ezaguna egin zaiguna. ●

# “Nafarroan 930 tortura testigantza bildu ditugu”

 XABIER LETONA BITERI

Nafarroako Torturatuen Elkarteak aurkeztu berri dute Berriozarren. Ainara Gorostiaga elkartekidearekin hitz egin dugu haren nondik norakoez.

## **Zeintzuk dira elkartearen helburuak?**

Torturaren aitortza, erreparazioa eta ez errepikapena. Horrela esanda badirudi simplea dela, baina hori lortzeko lan handia behar da. Hainbat lan egiten ari gara, horien artean Nafarroako torturatuen errolda. Bazkidetze prozesuan gaude eta Nafarroa osoan zabaldu dugun formularioaren bidez torturen eta tratu txarren testigantzak biltzen ari gara.

Elkarteak torturatuei zaintza sare bat eskainiko die, besteak beste babes taldeetan parte hartzeko, eta behar izanez gero psikologoekin ere kontaktuan jarriko genituzke. Horrez gain, eragile sozial eta politikoen harremanak bideratzea ere gure zereginen artean egongo da.

## **Zein emaitza izaten ari da formularioaren banaketa?**

Oso ona. 700 formulario banatu ditugu

eta orain jasotze prozesuan gaude. Ikusi dugu sarea sortzen ari dela eta jendea erantzuten ari da, bereziki 70eko eta 80ko hamarkadetakako torturatuak. 114 testigantza gehiago bildu ditugu, eta dagoeneko baditugu 930 tortura testigantza Nafarroan. Jarritako guneak eta sortu dugun sarearen ondorioz bildu ditugu horiek, baina zonaldeetako datuak ez ditugu oraindik bildu eta datuak aldatuz doaz egunetik egunera. Lan horrekin jarraituko dugu datozen hilabeteetan ere.

## **Testigantzak biltzeaz gain, zeintzuk izango dira zuen hurrengo urratsak?**

Hurrengo urrats sendoa Nafarroako tortura kasuei buruzko ikerketa independente eta profesionala gauzatzea litzateke, EAEn egin zenaren gisakoa. Hori lortuta ez da ezer amaitzen, baina pauso handia litzateke.

## **EAEn Eusko Jaurlaritzak bideratu zuen ikerketa hura. Nola ikusten dituzue Nafarroako instituzioak pauso hori emateko?**

Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten alderdi guztiekin egon gara. Nafarroako Gobernuako Bake eta Bizikidetzako zuzendari Martin Zabalzarekin egon gara, baita Ana Ollo kontseilariarekin ere... Harrera ona izan da eta entzunak sentitu gara. Ikusiko dugu datozen hilabeteetan ikerketa horrekiko pausorik ematen den.

## **Eta nola ikusten duzue gizartea torturarekiko?**

Jende askok oraindik ez du onartu nahi azken hamarkadetan hemen torturatu egin dela. Pixkanaka gero eta gehiagok sinesten du, baina oraindik bide luzea dago egiteko.

## **Azpmarratu nahi duzu besterik?**

Animatu nahi ditut torturak eta tratu txarrak jaso dituztenak elkartera biltzera. Asteazkenero egoten gara Iruñeko Nabarrera kaleko Zabaldi elkartearen, 18:00etatik 20:00etara. Nahi duenak eposta honetan ere topatuko gaitu: nafarroakotorturatuensarea@gmail.com. ●



# HEMEN DATOR GORILLAS, KALEA HILTZEKO MAKINA BERRIA: ZUK ESKATU ETA **15 MINUTU BARRU** **ETXEAN BERTAN JASOKO DUZU** FRENATUKO DITUENIK EZ DA

Amazon ondoren Glovo, Deliveroo eta Uber Eats-ek gure hiri eta auzoetako bizimodua hankaz gora jarri dutela uste baduzu, adi hurrengo uhinari: heldu dira Cajoo, Flink, Dija, Gorillas, PicNic, Everli... COVID-19 betean sortuta, tximista bezala zabaltzen ari diren banaketako start-up-ak. Etxean egunero behar dituzun elikatzeko edo garbitzeko osagai horiek di-da batean eramango dizkizute atariraino, zuk mugikorrez eskatu orduko.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

**15** minutuko hiria” esanda, menturaz irakurleari bururatuko zaio hiri jasangarri eta ekologikoago baten asmo utopiko bat 2020an Parisko auzapez Anne Hildagok modan jarria, frantsesez *Ville du quart d'heure* eta gaztelaniaz *Ciudad de 15 minutos* bezala ezaguna. Hiri eredugarri horretan, herritarrak behar lituzkeen oinarritzko zerbitzu guztiak eskuratu ahal izango lituzke oinez edo bizikletaz ordu laurdenez iristeko moduan. Ideia XX. mende hasieran Clarence Perry hiri planifikatzaileak asmatu omen zuen eta berrikitan kontzeptuari arnas berria eman dio Carlos Moreno frantses-kolonbiarrak, robotikan aditua bera.

Alabaina, COVID-19aren uberan *15 minutuko hiria* ez da ari hezurmamitzen hirietako jende eta auzoei bertatik bertara behar guztiak asetzeko aukera emanez –komertzioak, bulegoak, aisialdi lekuak... dena eskueran–, bizi berria eman behar omen zuten utopia hartan justu kontrako distopia berri batean baizik. *Arret Sur Images* web telebistak kontatu du *Livraisons en 15 minutes: l'empire du moindre effort* (“15 minutuko banaketak: mugitu beharrik ez izatearen inperioa”) kronikan, pandemiarekin hainbat *start-up*-ek zabaldu duten *quick commerce* (komertzio arina) ereduaren urtebeteko balantzea eginez.

ARGIAko irakurle hori: Europako metropoli handiren batean bizi baldin ba-

zara, astekari hau leitzen hasitakoan mugikorretik eskatu zenezake pare bat garagardo, patata frijitu zorro bat, haurrarentzako pardelak eta bazkaritarako guakamolea prestatzeko ahuakatea... eta artikulua amaitzerako ate-joka izango zenuke banatzailea enkarguekin. Horra *quick commerce* edo *q-commerce* delakoaren miraria, zure ohiturak bezala hirien antolaketa guztia irauliko omen dituen.

Flink, Cajoo, Getir, Gorillas, Dija... eta egunetik egunera sortzen ari diren *start-up* berrien funtsa da asteko edozein egunetan goizeko zazpikatik gauerdira arte ixtanteko banaketan –esan nahi da 10-15 minututan– etxeetaraino eramatea eguneroko bizimodurako gaur hurbileko komertzioetan erosten dituzun gauzak, zerbitzuagatik produktuak dendan baino %10 gehiago pagatuta.

Konpainion arma ezkutua deitzen da *dark store*: hirian bertan lokal hutsetan antolatutako sasi-almazenak, supermerkatu txiki batek eduki behar dituen 6.000 produktuen ordez 1.500-2.000 dauzkatenak. Hauetan eskaria jaso bezain laster produktu multzoa antolatu, bizikletaz edo patinez mugitzen diren banatzaileei eman eta zure atariraino ordu laurden baino lehen helaraziko dizkizute. Eta zuk lantokitik edo bidetik egin baduzu eskaria, zeu baino lehen daukazu patatak eta garagardoak atetan.

Kezka daukazula banatzaileen lan baldintzez? Lasai, Uber Eats, Deliveroo

eta enparauek ez bezala, *start-up* berriok ozen diote *rider*-ak muga gabeko kontratuz ari direla, lanerako tresneriak ugazabek ordainduta eta opor egunak ere bai. Promesok oraingoz sinesteko moduan zaude... hedabideetan oso gutxi zabaldu baitira lan baldintza gogorreatik *start-up* horien langileek egindako greba eta protestak –Gorillas sortu den Alemanian bertan egin dituztenak, adibidez–.

Alabaina, inbertsio funtsak dirutzak ari dira sartzten negozio *disruptore* haue-tan. Zergatik ote?

## EZ MUGITU ETXETIK!

Thibault Prévost kazetariak bere analisisian aipatu duenez, inbertsio funts handiak *q-commerce* proiektuotan dirutzak ari dira sartzten: COVID-19a zabaldu zenetik orain arte 14.000 milioi dolar. “Inbertsio funtsek *cash*-a debalde emango ez baliete, banaketa eredu berri honek ez luke iraungo”, dio Prévostek. Funtsean, kapital handia Gorillas, Getir eta besteekin errepikatzen ari da aurreko olatuko Glovo, Deliveroo eta abarrekin egindako operazioa. Negozioak ere azkenean ez baitira hain ezberdinak: sasi-biltegi edo sasi-sukaldeak antolatu hiri barruetan, logistikako langileak azken izerdi tantaraino zukutu eta enpresak behartu oso azkar handitzera, eroslea aurkitu arte... horrela saihestuz bidean kiebraz jotzea.



### DENA ATERAINO.

Kaleko bizirik gabeko hiria iragartzen digu banaketa berriak: ez ostaturik, ez bulegorik eta ez komertziorik, kale eta plazak jendez hustuta, agur bilkura eta harremani.

Prévost ausartzen da banaketa eredu berriak dakarrena iragartzera. Hona laburturik: Orain lehen fasean dira, errukirik gabeko gerra ekonomikoan, inbertsiogileak ari zaizkie finantzatzen berez erabiltzaileek –herritarrek– pagatu beharko lituzketen kosteak. Subentzio gisako horrek baimendu du hirietako gazteen artean ohitura bihurtzea edozer gauza telefono mugikorretik eskatu eta bestek etxera eramatea. Fase hau amaitutakoan, kontsumo ohiturak finkatuko direnean bai denboran eta bai gizarte harremanetan, geratzen diren enpresek *cartel* moduan erabakiko dute amaitu dela jolasa, prezioak igoz.

Ez dezagun uste ez garenik eroriko Gorillas eta besteen eskaintzetan, gure irrikak di-da batean eskuratzeko pro-

mesen aurrean amore emango ez dugunik. Sei aste behar dira ohitura berri bat sortzeko. Otordu azkarren aurrean amore eman genuen, hiru hamarkadaren bueltan bazkaritarako denbora ordu eta erditik ordu erdira murriztu dugu. Amore eman dugu ere Uber, Uber Eats eta funtsezkoak ez diren beharrak eskaintzen dizkiguten beste hainbaten aurrean. Aldatu dugu erosotasunarekiko gure harremana, ontzat eman dugu denborari etengabe etekina atera behar zaiola.

“Gaur inoiz baino behar handiagoa daukagu irteteko, elkar aurkitzeko, gure gorputzak topo egiten eta elkar ukitzen sentitzeko, telelanak ezarritako denboraren kudeaketa hausteko, besterik gabe aire berriak arnasteko. Hamabost

minutuko banaketak justu alderantzizkoa proposatzen du, norbere baitan ixtea, bere oskolean, kosta ahala kosta. Are gehiago usteltzea basamortu kognitibo batean, bakoitza bere ameskerian murgilduta. Kanpokoari ihes egitea barrukoaren mesedetan, mugimenduari uko egitea geldi egotearen truke. Eta zertarako? Etxe barruko gune hertsian lan eta jan eta lo jarraitzeko. Etxez etxeko banaketak hiria zatitzen du espazioari eta esfortzuari dagokionez bi klase isolatutan: batetik barrukoak, mugitu ere egin gabe daudenak; bestetik kanpokoak, eten gabeko mugimenduan. Eta hauen artean, azken geruza ikusezinean, etorkin paperik gabeak, bizi-rauteko nortasun digitalak alokatzen dituztenak”. ●



**ZINKUNEGI**  
OPTIKA

**NINA MÛR**  
eyewear

*Egurrezkoak*  
*Eskuz landuak banan-banan*  
*Jasangarriak*  
*Arinak eta erresistenteak*  
*Kalitate handiko eguzki-lenteak*



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com

# Leire Villanueva Iseo

JAIO. MUSIKAZ BESARKATU. HIL



## SENTIMENDUEKIN LAN EGITEN DUZUNEAN PERTSONENGAN ZERBAIT ERAGITEN DUZU, ETA HORI DA MUSIKAK DUEN EDERRENA



*Iseo*-ren ahots garden eta indartsua reggae, elektronika eta haize indartsuekin bat eginik Iseo & Dodosound taldean. Edo *Iseo* bera bakarrik gitarra soil batekin, euskarazko abesti kuttunak kantatzen. Dena da *Iseo*. Energia eta baikortasuna transmititzen dituen artistak lan berria aurkeztuko digu laster. Haren aurrerapen singlea: *Arigato*, jendearekin egoteko eta dantzatzeko gogoia ematen duen esker oneko kantua. Eta ez da gutxi.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

### Jende askok ez daki *Iseo* Barañaingoa dela eta familia Irunberrikoa...

Bai, oso gazte joan nintzelako hemendik. Lehenengo Bartzelonara, itzulpengintza ikastera, eta gero Madrilera. Gainera beti ari gara bidaiatzen alde batetik bestera. Hala ere, ahal dudanean Irunberri-  
ra etortzen naiz lasai egotera. Horren beharra daukat.

### Zer izan zen Bartzelona zuretzat?

Hiri handi bat eta zerotik hasteko aukera eta beharra. Bat batean ez duzu inor ezagutzen eta inork ez zaitu ezagutzen. Gau batean El Mediterráneo izeneko tabernara joan nintzen. Han gauero norbait aritzen zen abesten eta pentsatu nuen nik ere han egon nahi nuela. Jabea-

rekin mintzatu, probak egin eta hasi nintzen astero jotzen. Nire bigarren etxe bilakatu zen! Han ikasi nuen jendaurrean egoten. Horren txikia izanda jendea oso gertu zenuen. Badirudi toki handiak zailagoak direla, baina ez da hala. Gainera denetik gertatzen zen hor. Egun batean pertsona bakarra joan zen eta berarentzat egin nuen emanaldi osoa.

### Zu ere *Jaio.Musika.Hil*?

Erabat. Txikitatik etxean beti musika izan dugu inguruan oso modu naturalean. Amak zeharkako txirula jotzen du, aitek bonbardinoa jotzen zuen Jarauta 69 txarangan, osaba-izebak eta lehengusu-lehengusina guztiek jotzen dute zer bait. Gainera nik uste dut Barañaingo

nire belaunaldiko jendearentzat oso aukera ona izan zela Luis Morondo musika eskola zabaltzea. Horri esker jende piloak ikasi du musika. Ni 6 urterekin hasi nintzen pianoa jotzen. Gainera etxean beti kantu zaleak izan gara. Irunberrin Gabonetan, adibidez, bizpahiru gitarra atera eta kantutegi oso bat egiten genuen akorde gutxi batzuekin.

Internet ere oso gertu izan dut beti eta horrek musika berriak entzuteko izugarritzko aukera eman dit. 12-13 urterekin Cristina Aguilera, Back Street Boys, Spice Girls... entzuten nituen. 15 urterekin lagun batzuekin Síndrome de Cronos taldea egin genuen bertsoak kantatzeko eta nire lehen abestia 18-19 urterekin idatzi nuen, Bartzelonan nengoela.



# Leire Villanueva López, Iseo

BARAÑAIN, 1991



Musika giroan hazi zen eta 6 urterekin Barañaingo Musika Eskolan pianoa ikasteari ekin zion. Bartzelonan Itzulpengintza ikasi eta handik Madrilera joan zen graduondoko bat egitera. Hiri handian zazpi urte eman ondoren joan den urteko udaberrian Espainiako Estatuko iparraldeko herri txiki batera joan zen bizitzera, naturaz inguratuta. Bakarleri gisa soilik ahotsez eta gitarraz osatutako *Red Gardens*-ekin estreinatu zen 2013an. 2016an *Last Nigth* publikatu zuen, banda batek lagunduta. Alberto Iriarterekin batera osatutako Iseo & Dodosound proiektuan ari da buru-belarri ordutik, dub, reggae eta pop estiloak landuz. Bi disko dituzte: *Cat Platoon* (2015) eta *Roots in the Air* (2017). Orain hirugarrena ari dira bukatzen eta bien bitartean *Etxean* izeneko EPa argitaratu du *Iseo*-k. Lau euskal abesti ezagunen bertsio intimista eta organikoak.

Eraginak toki guztietatik datoz. Hor-tik eta esploratzeko gogotik ere heldu zait abesteko nire modua.

## Eta itzultzaile moduan lan egin duzu noizbait?

Hasieran musikatik bakarrik ezin nuenez bizi, proiektu batzuk egin nituen. Horieta bat izan zen Fermin Murguzaren *Black is beltza*-ren gidioa itzultzea, eta filmeko soinu bandan ere hartu nuen parte.

Horretaz gain, lan egin dut hezkuntzan, lokutore moduan, historia audio-liburu batean... baina musika gero eta pisu gehiago joan da hartzen nire bizitzan.

## Nola hartu zenuen profesionala izateko erabakia?

Une hori oso zaila da. Madrilera joan nintzanean sentitu nuen erabaki bat hartu behar nuela. Musika egiten ari nintzen, nire bakarkako lehen diskoa eta Iseo & Dodosoundena kalean zeuden ordurako. Gradu-ondokoa amaitzean argi neukan musika egin nahi nuela eta erabaki nuen probatzea. Artearen munduan gabiltzan ia guztiok pentsatzen dugu, nolabait, lan "serio" bat bilatu behar dugula eta besteari, gure zaletasunari, soberan dugun denbora eskaini behar diogula. Baina soberako tarte horietan ez duzu ez bururik ez animorik lan egiteko.

Une hartan erabaki nuen musika nire lana bilakatzea eta nire kalteteko denbora guztia horri ematea. Hasieran dena ez da moketa eta purpurina, argi dago. Gakoa izan zen aukera hori eman niola musikari. Bizitza oso motza da eta probatu behar da. Beldurra oso eroso da eta batzuetan aitzakia ere bai. Kontziente naiz nik gurasoen laguntza izan nuela eta mundu guztiak ez duela halakorik, baina beldurratik ez dugu eserita gelditu behar.

## Beste toki batzuetako artisten baldintzak hobek dira?

Kanpoan hainbat denboraldi eman ditut, hizkuntzak ikasten batez ere, eta Frantziako egoerak, adibidez, ez dauka hemengoarekin zerikusirik. Han badaukate segurantza soziala eta lan-

gabezia kobratzeko eskubidea urtean 30 kontzertutik gora emanez gero. Iseo & Dodosoundek urte eta erdian 150 kontzertu eman genituen azken biran, adibidez, eta ez genuen izan batera laguntzarik.

Emanaldietan askotan ikusten dugu nola ondoko herri txikiko talde batek irekitzen duen jaialdia izugarritzko maila onarekin. Hor nabaritzen da musikan eta artean, oro har, egiten den inbertsioa.

Niri askotan, hasieran batez ere, jendeak galdetzen zidan ea ordaintzen zidaten musika egiteagatik, harrituta bezala. Gaur egun oraindik zaila da musika ofizio bat dela ulertaraztea.

## Diskoekin salmentatik dirurik ateratzen da?

Ekonomikoki diru-iturri nagusia kontzertuak dira, hala ere biniloarekin ezusteko handia hartu dugu. Gure musika estiloaren inguruan, biniloak balio handia dauka. Gure bi diskoak Europara, AEBetara eta mundu osora bidaltzen ditugu.



**Barrura begiratzeko une baten nago, eta, bestalde, hasi naiz heldutasuna nabaritzen nire ahotsean. Oso kontu interesgarria. Eta dena da Iseo"**

## Dodorekin duzuna bilatu gabeko istorio bat da?

Erabat. Bera Zizurkoa da eta ni Barañaingoa. Iruñerriko eszenan denok ezagutzen dugu elkar. Bera Raperos de Emausekin zegoen 15 urte zituenetik eta 2013an elkar ezagutu genuen. Radio 3n egin zidaten elkarrizketa batean ezagutu ninduen. Orduan bilatu ninduen eta kaña bat hartzeko gelditu ginen. Elkarri eman genizkion geure maketak eta proposatu zidan elkarrekin zerbait egitea. Asmo handirik ez duzunean gauza interesgarriak ateratzen dira.

Nire konposatzeko modua erabat organikoa zen, gitarra eta libreta bat, eta bat-batean ordenagailuaren aurrean geunden, programa eta teklatu batekin. Niretzat bazen martetarrak hiltzeko programa baten antzekoa. Bideojoko moduko bat. Hala ere, disko erdia konposatu genuen bizpahiru hilabetetan. Gozatzen ari ginen. Berak saio asko zeukan DJ bezala hemen inguruan, Rocko Tenor Saxo jotzailearekin, eta ni ere hasi nintzen haiekin joaten. Saioaren erdian atera





eta egin berriak genituen kantak abesten nituen. Hasieran hala zen, baina uda bukaeran jendeak galdetzen zuen ea neska etorriko zen eta gero eskatzen zuten Iseo ere etortzea. Horrela joan zen taldea sortzen. Madrilerara jaitsi ginen 2014ko irailean eta hurrengo apirilean *Cat Platoon* atera genuen.

Hortik aurrera gertatu dena oso polita izan da. Indian bi bira egin ditugu, Latinoamerikan hirutan izan gara, Lituania, Frantzia, Alemanian, Italian, Erresuma Batuan... eta estatu osoan ibili gara eten gabe.

#### **Orain hirugarren diskoa.**

2022an bira egiteko asmoa dugu. ZEID festibala, apirilaren 2an, izango da lehentakoa bat eta hortik aurrera beste guztia.

#### **Arigato single alaia atera duzue aurrerapen gisa? Holakoa izanen da disko berria?**

Bai. Ospakizun bat da. Oso disko interesgarria atera zaigu. *Arigato* toki guztietako jendeari eskerrak emateko abestia da. Pandemiak eragina izan du sorkuntzan, alor guztietan bezala. Disko hau besarkada moduko bat izango da. Animoa eman nahi diogu jendeari. Hori pentsatu gabe atera da, baina hor dago, letretan.

#### **Jende gaztea gaizki ari da pasatzen krisiarekin eta pandemiarekin...**

Murrizketak gogorak izan dira. Jenderentzat oso zaila izan da. Gazte zaren dena etxetik kanpo egin nahi duzu eta egoera honekin ezin izan da hori dena egin.

Bestalde, pandemiari esker argi gelditu da denok behar dugula artea, entrenimendua, kultura... errealitatetik ihes egiteko edota hura hobeki ulertzeko. Jendeak kontzertuak behar ditu eta ikusi dugu uda honetan jendeak nola erosten zituen sarrerak ziztu bizian, garestiak izan arren.

#### **Atrapada kanta egin zenuen konfinamenduan.**

Hala da, Madrilgo pisuko sukaldean. Hor ere benetako telefono dei bat sartzen da. Amarekin solasean agertzen naiz abestiaren bideoan. Egunero deitzen nien gurasoei. Pandemia oso zaila izan da hirietan. Hiriak pentsatuta daude erreboluzio askotan bizitzeko eta hori eteten denean zaila da hori bizitzea. Hiriaren txarrena besterik ez zaizu gelditzen halakoetan, horregatik alde egiteko gogoak azkartu zaizkit eta mendi aldera joan naiz.



#### *Azken hitza*

### **ETXEAN, EUSKARAZ ABESTUTAKO LAU GUTIZIA**

“Hau dena nire barruan dago. Hemengoa naiz eta hau guztia da nire kultura. Gure sustraiei ahotsa jartzea, ospatzea eta munduarekin partekatzea da egin dezakegun keinurik politena. Umiltasun guztiarekin baina errespetu handiz egin dut. Batzuentzat arraro izan da eta kanpoko jendeak galdetu dit ea zer hizkuntza den hori. Jakin-mina eragin die”.

### **Etxean euskarazko EPa kaleratu berri duzu. Mikro berri batzuen erruz, ezta?**

Uda amaieran gertatu zen. Etxera iritsitako mikro berriak probatzen ari ginen. Niretzat abuztua beti hilabete malenkoniatsua izan da. Uda oso garai bizia eta nahasia izaten da eta abuztu amaieran herrira joateko gogoia ematen dit atsedean hartzera, familia eta lagunekin egotera. Ordena berreskuratzeko beharra sentitzen dut. Mikroak frogatzen ari ginenean alboan nuen gitarra hartu eta abesten hasi nintzen hainbeste maite ditudan kanta batzuk. Nik ez nekien Dodo grabatzen ari zela. Txakurrak entzuten dira, akatsak daude... Eta entzun genituenean harrituta gelditu ginen. Plazaratu behar genituela erabaki nuen. Naturala da, bizitza bera bezalakoa. *Txoria txori*-n tratatzen naiz akorde batean eta gero zuzentzen dut, adibidez. Sumatzen da ez dagoela prestatua. Eta uste dut polita dela hain lan natural eta erreala ateratzea, gaur egun dena oso muntatua dagoelako, oso zuzendua, kontrolatua, neurtua. Eta gauza naturalak ez dira ikusten. Badakigu sare sozialetan ikusten duguna ez dela erreala. Akatsak eta zimurrak ez dira erakusten. Orain naturan bizi naiz, gauza batzuk ez zaizkit jada inporta, nire itxuraz ere beste jarrera bat daukat... eta ideia hori oso presente dago EP honetan.

### **Zergatik kanta hauek?**

Benito Lertxundiren *Baldorba* etxean betidanik entzun izan dugu eta asko

abestu dut gurasoekin. Euskal Herrian kontzertuak ematen ditugunean askotan jotzen dugu.

*Txoria txori* azken urteetan hurbil izan dudak kantua da. Honen bertsio bat jotzen genuen bira batean.

*Aitormena* behin bakarrik jo nuen, udako gau batean herrian egindako kontzertu batean. Oso ederra da.

*Eskuak* oso berezia da niretzat. Berri Txarrak-en lehen diskoak goitik behera dakizkit, eta 2019an Kobetamendin egin zuten kontzertuan haiekin abestea proposatu zidatenean izugarria izan zen. *Eskuak* eta *Biziraun* abestu genituen elkarrekin eta ikaragarria izan zen.

Uste dut EP hau opari txiki eta intimo bat dela jendearentzat. Madrildik joanda beste fase berri batean nago eta nik uste dut hori nabaritzen dela abesti hauetan. Barrura begiratzeko une baten nago, eta, bestalde, hasi naiz heldutasuna nabaritzen nire ahotsean. Oso kontu interesgarria. Eta dena da *Iseo*.

### **Zuzenekorik egiteko asmorik?**

Atera nuenean pentsatu nuen polita izan zitekeela kontzertu-mintzaldi moduko batzuk egitea, baina erabaki dut *Iseo & Dodosounden* hirugarren diskoaren sorrera prozesua errespetatzea. Disko bat egitea haurdunaldia bezalakoa da. Luzea, momentu zailak eta onak daude, eta erabaki genuen lehenengo hau bukatzea. Nik ez daukat batere presarik ezerekin.

Oso erantzun polita eta benetakoa izan dugu jendearen eta komunikabideen partetik. Benetan, eskerrik asko guztioi! Sentimenduekin lan egiten duzunean pertsonengan zerbait eragiten duzu, pertsona horiek ezagutu gabe ere, eta hori da musikak duen ederrena.

### **Nola ikusten duzu eszena? Iruñerrian bereziki dago mugimendu handia?**

Beti egon da mugimendu handia Iruñerriko eszenan, baina egia da azkenaldian oso mugituta dagoela eta hori primeran dago!

Oso interesgarria dago panorama une honetan. Garai konplikatueta sorkuntza lan indartsuak sortzen dira. Europan, gerren arteko garaian abangoardia guztiak sortu ziren oso denbora gutxian. Gauzak zail daudenean ihes puntua bilatu behar da eta pandemiarekin halako zerbait gertatzen ari da. Nik normal ikusten dut hainbeste jende gazte hitz egiteko gogoz egotea. Hori da behar duguna. Agian pandemiarik gabe ez legoke bor-bor hori. Helduei entzun behar zaie, baina gazteak ez dira inoiz ahaztu behar. Ideia, ahots estilo berriek... panorama aberasten dute. Oso sintoma ona da eszena hain aktiboa egotea.

### **Sare sozialetan mantra positiboak zabaltzen dituzu goizean goizetik.**

Bai. Nire mantra Twitterren bada "gaur egun ona izango da". Azkenean jasotzen dugu proiektatzen duguna. Zeure burua toki positibo batean irudikatzeke erremintak dira mantra hauek. dut. ●





## Negozioa berritzea



DAVID BOU  
KAZETARIA

**K**risi klimatikoan murgilduta bizigara, denok gara beronen jakitun. Hainbeste, ezen instituzio publikoak, ebidentzia zientifikoen aurrean urte luzez beste aldera begiratu duten horiek, trantsizio energetiko gisa izendatua gauzatzeko lanean ari direla.

Hala eta guztiz ere, Katalunian ikusten ari gara Generalitatea ekonomiaren deskarbonizaziorako proposatzen ari den aterabideek jada existitzen diren arazoak larriagotu ditzaketela: ekosistemen eta bioaniztasunaren galera.

Hainbat plataforma eta kolektibok –ekologistak, nekazaritzakoak, unibertsitate alorrekoak, baita enpresa alorrekoak ere– salatu dute: Kataluniako Gobernuaren energia berriztagarrien hedatze eremuan mehatxu larria ikusten dute. Mehatxua hiri handientzat –eta ez horiek gauzatzen diren udalerrientzat, bereziki Lleidako herriak eta Tarragona barrualdea– pentsatutako azpiegiturek dagoeneko izugarri zigoritutako herrialdeko eremuen garapen jasangarriarentzat.

Larrialdi klimatikorako eta energia berriztagarrien bultzadarako neurri urgenteen azaroaren 26ko 16/2019 Lege Dekretuaren onarpenarekin, garrantzia historiko eta kulturala daukaten eremu naturalak mehatxatzen dituzte zentral eoliko eta fotovoltaioken proiektuen tramitazioan goraldia ematen ari da.

Kontra dauden erakundeek kritikatu dute proiektuak tramitatzen ari direla lurraldearekin elkarriketa eta parte-

Suntsitzen jarraitzeari esker aberastu diren eta kolapsora eraman gaituzten berberak ditugu aurrez aurre, honako honetan “energia berdea” etiketapean

hartzeko prozesuak kontutan hartu gabe, eta lurralde oreka, arrazionaltasun eta eraginkortasun energetiko irizpideak aplikatu gabe. Jakina, hori guztia ez da ustekabekoa, jokoaren arauak zehazten dituztenak promotoreak izatea errazten ari baita Generalitatea.

Kontrakotasuna agertu duten erakundeek ez dute inolaz ere ukatzen energia berriztagarrien produkzioa orokortzeko beharra, eta beren proposamenetako bat da Kataluniako industria poligonoek osatzen dituzten 29.372 hektareak probestea –horietatik 13.201 Bartzelonako Metropoli Eremuan daude–, teilatuetan plaka fotovoltaiakoak jartzeko. Produkzio zentralak poligono horietan eraiki daitezkeen eskatzen dute, teilatu industrialetan eta hirikoetan, degradatutako eremu periurbanoetan, eta batez ere kontsumo zentroetatik gertuko eremuetan.

Egungo ereduaren eraldaketa erradikala ere exijitzen dute, energia kontsumo-

moaren desazkundera, autokontsumoa eta tokian tokiko energia komunitateen ugaritzea indartuko dituen eredurantz egiteko. Baina proposamenak eta aterabide alternatiboak egon badauden arren, betiko legez boteretsuen interes ekonomikoak gailentzen dira, eta horiei errazagoa zaie kaltetutako eskualdeetan lur-eremu merkeak eskuratzea, gastuak murriztuz eta irabaziak handituz.


Konpainia horien artean dago Forestalia, Aragoiko txerri sektoreko handi-mandi Fernando Samper Rivas buru duela. Edo baita ere Green Capital Power, Jesús Martín Buezasen merkataritza-sozietatea, Florentino Pérezen errain ohia. Bi enpresa horiek aurreikusten dute Oso Goi-Tentsioko (MAT) hiru linea eraikitzea Katalunian, eta beste bat Valentziako delts Ports eskualdean. Guztia Aragoian eta Katalunian aurreikusten diren proiektuetan produzitutako energia eolikoa eta fotovoltaiakoa ebakutzeko, eta bideratzeko arku mediterraneo-ko hiri handietara (Bartzelona, Castelló, Tarragona, Valentzia), askotariko azpiestazioen bidez goi-tentsioko europar sarean konektatzeko.

Laburbilduz, beste behin ere, suntsitzen jarraitzeari esker aberastu diren eta kolapsora eraman gaituzten berberak ditugu aurrez aurre, honako honetan “energia berdea” etiketapean. Eta beti botere politikoaren onespenearekin, nahiz eta egun botere politiko horrek bere burua independentista eta ezkerreko izendatu. ●

# Erdara txarra da, tira, bueno, ez dakit...



ANE ABLANEDO LARRION  
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

**G**urasoek ez zekitenez, nik ez nuen euskara etxean jaso. Baina gure familiaren historian euskarak beste katebegi bat gehiago galtzerik nahi ez zutelako, ikastolara eraman ninduten, eta grina biziz saiatu ziren hizkuntzaren hazia nire baitan sakon ereiten. Kontua da ez nuela euskararekin kontakturik izan hiru bat urterekin ikastolan hasi nintzen arte, baina hala ere, harrigarriki azkar, aise, eta ongi ikasi omen nuen, garaian maisu-maistra izandakoek kontatu didatenez. Nonbait, erraieran hezuramitua neukan ordurako euskal identitatea, hainbeste non irudipena dudana euskara nigan lora zedin beharrezko ongarri gisa funtzionatu zuela, hitzei nire mihirainoko bidean berezko manera batez lagunduz.

Eskertuta nago, noski. Eta ez euskara eskaini izate hutsagatik, baizik eta horrekin batera eman zizkidatelako hizkuntzaren errealitatea interpretatzeko gako politikoak, eta horiei eskerrak eskuratu nuelako, neurri handi batean bederen, erdararen nagusitasun erabatekoan euskararen hautua egiteko ume batek behar duen motibazioa, espainolaren inertziak eraman ez zaitzan egin beharreko ahaleginari esanahia ematen dion kontzientzia politiko minimoaren zentzuan.

Bai, gurea herri menderatua dela haurrei ahoan bilorik gabe adierazten zitzaien garaietakoa naiz, Euskal Herriaren (eta hizkuntzaren) gatazka, herri zapaldu baten testuinguruan kokatzen zenekoa. Eta eskerrak, 50 urte berantago sortu izan banintz, oso bestelakoa zatekeelako euskararen testuinguru soziopolitikoaz helaraziko zitzaidan diskurtsoa, eta oso diferentea, seguruenik, ondorioa.

Ez zitzaidakeen esango, esaterako, gurea herri menderatua dela, baizik eta gizarte anitza. Eta egiturazko menderakuntza politikoa ukaturik, noski, ezin izango zitzaidan horren arabera azaldu hizkuntza espainola eta frantsesa hemen existitzearen arrazoia; ezta aitortu ere, hizkuntza horiek hemen inposatuak direla kontsideraturik, hizkuntza horien presentzia hutsa dela hemen euskararen biziraupenerako mehatxu. Egun, ekidin beharreko desoreka batzuegatik ez balitz, batzuentzat eleantzasun zerutiar bilakatua litzateke bat-batean zapalkuntza linguistikoa, kolonizazioa eta asimilazioa sentsibilitate diferenteen arteko elkarbizitza bihurtu zaigun magia berekin. Gizarte plural eta modernoan ezaugarri desiragarri, Yupiren munduetan bizi garela sinesteko bultzatu eta sustatu beharrekoa.

Bada, pairatu dugun inboluzio ideologikoa ikusita, pribilegioa da niretzat Eus-

kal Herriko errealitateaz hain kontakizun gordina baina zorrotza jaso izana, ttipi-ttipitatik jaso ere. Nire kasuan bederen, lezio hauxe dagoelako euskarari hain irmoki heldu izanaren motibazioaren oinarrian: ez nintzela espainola, espainolek bakarrik egin behar zutela espainolez, eta espainola ez zela hemen ona, euskara desagertaraztearen helburuarekin ezarria baitzen.

Heziketa askeari buruz eskaintzen ditudan hitzaldietan ikusi ohi dudana, nabarmena da epelkeria politiko horrek euskal helduengan sortu duen noraeza eta absurdua, gaztetxoek hizkuntza ohituretan eragiteko orduan.

Zeren, begira: nahi dugu euskaraz egin dezaten –eta ez erdaraz–, baina mugarik ezarri gabe nahi dugu erdaren erabilera murriztu; hizkuntzak ez direlako berez txarrak, baina min ematen digu haurrak espainolez edo frantsesez entzuteak; eta ez diegu hala ere min horren arrazoia azaltzen, hori politika litzatekeelako, eta haurrak politikatik at utzi behar baitira, badakizue; baina arrazoi politikorik gabe, zer argudio egon liteke espainolaren eta frantsesaren kontra? Baina ez, ez, gu ez gaude kontra, hizkuntza guziak dira aberasgarriak, baita hemengo erdarak ere, hori bai, euskara den artean hobetsita...

Eta orduan, galdera: nola egin genezake?

Alo, barkatu? Mirariak Lourdesen. ●



**JON ALONSO**  
ITZULTZAILEA

## Karrikiri aldaera

**G**arai zailak analisi politikoak informazio maila oso apaletik egiten dituen amateurrarentzat. Izan ere, Kongresuko lehengo eguneko zirkua ikusita, analista profesional denek analisiak egitean “zuhurtzia” oso beharrezkoa dela azpimarratzen dute.

Komeni da ez ahaztea PPK egin zuen lan-erreforma baliogabetzea zela Sanchezen inbestiduran itundu zen puntuetako bat. Gobernuak ez du konpromiso hori bete.

Kongresuko lehengo eguneko espektakulua lotsagarria da. Sanchezen poza, txiripa hutsez lortutako garaipen pirriko batengatik txaloka, patetikoa da. PPko diputatua, botoia sakatzen ez dakiena, zer arraio ari da Diputatuen Kongresuan? Politika eta politikariekiko arbuioa ez da gaurkoa. Halako espektakuluek arbuio hori areagotu baino ez dute egiten. Ez da erraza kalkulatzeko joan den egunean VOXek zenbat boto irabaziko zuen.

Ezkerreko alderdi batek langileen alde egin dezakeen guztiak UPN edo Ciudadanos bezalako alderdi baten oniritzia badauka, ezin liteke imajinatu abstentzioaren aldeko kanpaina eraginkorragorik.

UPNri beste legegintzaldi bat boterea ukitu gabe oso luze egingo zitzaizola askok uste genuen. Harrigarria, izatekotan, zera da: beren barneko tira-birak zein ongi ezkutatu dituzten, eta barneko tirabira horiek noiz eta nola lurmendu diren.

Eskandalua hain izan da handia, uste izatekoa dela ondorio sakonak ekarri-

ko dituela, astebetean konpontzen ez direnetakoak. Eskandaluak eskuinaren barne-berrantolaketa berri bat ekarriko du, tartean zatiketak eta jaka-aldaketak daudela? Iruñeko Udalarari eragingo dio? Nafarroako eliteek ez dute inoiz arazorik eduki PPrekin bat egitea komeni izan zaienean; baina ez dute PPren siglen pean agertzea gehiegi maite izan, ezta ere. Orduan, zein izan liteke alternatiba? VOX? Gogorra dirudi hori imajinatzea, baina gauzak ongi egingo balituzte –pertsonek ezagun eta herrikoi bat beren lerroetara bildu, nafartasun espainiarren gorazarrea, diskurtsoa pixka bat moderatu...–, ni ez nintzateke nire auzokoez gehiegi fio izango.

UPNk PSNrekin dituen loturak ez eteteke erakusten duen gogo bizia, PSNek UPNrekin dituenak ez eteteke erakusten duenarekin baino ezin da konparatu.

Nazario Karrikiri Ibarregarai Iruñean jaio zen, 1805. urtean, baina batez ere Madrilén ibili zen politika eta negozioak egiten. Zezenketarako ganadutegi ospetsua sortu zuen, Karrikiri famatua. Askok geroago, izen bereko euskara taldea eduki dugu. Berriki, koronabirusaren zepa bati, “autoktonoa” nonbait, izen hori paratu diote. Edozertarakoa baita, antza, eta zergatik ez jarri izen hori traizioa egiteko manera berriari.

Bitartean, Estatuak beretzat hartu ditu “banku txarra”-ren (Sareb) galerak. Baina dagoeneko inor ez da horretaz gogoratzen. ●



**LEIRE NARBAIZA**  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

## Bi

**O**tsailean urte bi bete dira Zaldibarko abortegia amildu zela. Martxoan pandemiaren bigarren urteurrena dator, bi hilabetez etxean geratu ginenekoa. Katastrofe bi. Bigarrenak lehenengoa estali zuen, baina Eitzagako hondamendiaren gestioak erakutsi zizun izurritea zelán kudeatuko zen.

Hondakindegia behargin bi, Alberto Sololuzeta eta Joaquin Beltran, eroan zituen. Beltranen gorpua ez zuten topatu. Zaborra ere bertan geratu da. Eitzagako biztanleak abandonatuta daude hondakinen ondoan. Inguruan bizi garen guztiok segitzen dugu jakin barik zer ar-

nastu genuen, zer dugun alboan lurperatuta, zer daukagun guztiok autobideari itsatsita (jausitakoa bertan dago-eta).

Pandemian segitzen dugu, eta kudeaketa 2020ko otsailean zabortegian egin zena bezain kaotiko eta ulertezina da. Herritarrok, babes barik, noraezean askotan, informazio nahasgarria jasotzen gabiltza urte biotan.

Gestore bikainak ei ziren gobernuakide biak. Biek ala biek erakutsi digute kontu biak txarto kudeatu dituztela; are okerragoa, egindako hanka-sartzeetatik ez dutela ikasi, eta ikasi ere ez dutela egin gura.

Bi larregi. ●

# Semaforo berdea



**JOXERRA AIZPURUA**  
INDUSTRIA INGENIARIA

Orain hamar urte pasa, Fukushima lehertzearekin batera, ia mundu osoan, baina batez ere Europan, energia iturrien inguruko eztabaida areagotu zen. Alemaniak hartu zuen epe ertainera nuklearrak ordezkatzeko lidergoa; Espainiak eta Frantziak ere, aho txikiarekin bederen, bide beretik jotzeko asmoa azaldu zuten. Baina berehala sortu zen hondakin nuklearrekin egin beharrekoaren inguruko eztabaida eta gai horren inguruko korapiloak eztabaida nuklearra lausotu zuen apurka, eta azkenerako baita desagerrarazi ere.

Pandemia garaian ez da ia eztabaidarik izan, gizartea lokartuta egon delako eta energia beharrak aurreko urteetakoak baino txikiagoak ere izan direlako; baina pandemiaren amaiera dirudien garai honetan eztabaida bortizki piztu da, izan ere, etxetik ateratzearekin batera energia beharrak esponontzialki hazten ari baitira.

Orain gutxi, Frantziako presidentek frantziar industria laguntzeko 30 mila miloi euroko laguntzak iragarri zituen. Dirutza horren zati bat industria nuklear txikiak sortzeko izango omen da. Transizio energetikoa egiteko urteak behar

Macronek saldu digun nuklear txikien bideak aurrera egin dezake eta hurrengo hamarkadetan zentral nuklearrez josita topa dezakegu Frantzia, Europa eta mundua

izango direnez, hamarkadak iraungo dituen transizio horri laguntzeko tresna ezin hobekak izan daitezkeela zioen Macronek. Zentral nuklear klasikoaren potentziaren laurdena izango luketen zentralak perretxikoak balira bezala eraikiko dira era seguruan, denbora laburrean, eta gainera erabilera anitzekoak izan daitezkeela ziurtatu dute teknologia horren defendatzaileek. Txina eta AEB abiatu dira bide horretan, eta Europan iritzi kontrajarriak daude: Frantzia eta Herbehereak, esate baterako, horren al-

dekoak dira, eta Alemaniak ezezkotan jarraitzen du.

Azken hamar urteotan energia berriztagarrien ezarpena ia bikoiztu egin bada ere, oraindik oso pisu txikia dauka, egungo energia kontsumoaren %10aren azpitik. Munduan gero eta adostasun zabalagoa dago berotegi efektuari aurre egin beharri dagokionez, karbono dioxidoaren eta metanoaren emisioak gutxitu behar diren aurrean, baina gizarteak dituen energia beharrak urterotan handitzen direla eta energia berriztagarrien ezarpenak gorabehera handiak dituela kontuan hartuz gero, Macronek saldu digun nuklear txikien bideak aurrera egin dezake eta hurrengo hamarkadetan zentral nuklearrez josita topa dezakegu Frantzia, Europa eta mundua.

Europak onartu berri du nuklearrei “berde” izena jartzea, eta gauza bera gertatu da Alemaniak defendatzen duen gasarekin. Energia mota horiei semaforo berdea piztuko zaie Europa osoan, eta Euskal Herrian ere bai. 70eko hamarkadan Lemoizko zentralaren inguruan bultzatutako “Nuklearrik? Ez, eskerrik asko” esloganak jarraipenik izango al du? ●



ANTXETA

**IRRATIA**

90.5 / 89.7 FM

*uhinak euskaraz eta libreki astintzen*




#bizitzajokoan  
#TierraVidasDerechos  
#Congresobizitzajokoankongresua



# BIZITZA JOKOAN

## KONGRESUA

MARTXOAK 1, 2 ETA 3  
EHU/UPV PARANINFOA  
BILBO - EUSKAL HERRIA

Antolatzailea:



Parte hartzen dute:

- » **CEAR EUSKADI** – Comisión Española de Ayuda al Refugiado
- » **CEFREC** – Fundación para el Desarrollo de la Comunicación Intercultural
- » **MGI** – Mugarik Gabeko Ingeniaritza
- » **IMD** – Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de DDHH
- » Asociación Maya **UK'UX B'E**
- » **Deusto Unibertsitateko** Giza Eskubideen Institutua
- » **LEB** – Latinoamerikako Eskubideen Behatokia

Babesten dute:

- » Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- » Bizkaiko Foru Aldundia
- » Euskal Herriko Unibertsitatea – Bilboko Hezkuntza Fakultatea

## AMA LURRA, MILITARIZATUA, SETIATUA, POZOITUA, (...) EKINTZARA PASATZEA ESKATZEN DIGU.

BERTA CÁCERES

Ekintzara pasatzeagatik hain zuzen ere lapurtu zioten bizitza Berta Cáceres-i. Natura defendatzen duten beste askori bezala.

Izan ere, Krisi Klimatikoaz eta ekintzara pasatu beharraz iadanik horrenbeste hitz egiten denean, oraindik gaur egun Lurra eta bertan bizi garen izaki ororen eskubideak defendatzeak, bizitza propioa arriskuan jartzea dakar berekin.

Alegia, bizitza jokoan Bizitza bera defendatzeagatik.

Ekosistema asko arriskuan daude, klima larrialdiak, deforestazioak, meatzaritzak, habitaten suntsipenak, neurri gabeko industrializazioak edota ingurugiroaren degradazioak eraginda.

Larrialdi klimatikoaren aurren aritzeko denbora amaitzen ari da eta pertsonen BIZITZA, LURRA, eta ESKUBIDEAK jokoan daude.

Guzti horren inguruan hitz egin nahi dugu marxoak 1, 2 eta 3 Bilbon ospatuko dugun Bizitza Jokoan Kongresuan. Eta ikuspegi desberdinetatik abiatu nahi dugu: Giza eta Naturaren eskubideak defendatzen dituzten pertsona eta kolektiboena, politikariena, zientzialariena, ekintzaile soziala eta kazetari zein komunikatzaileena. Eta noski, mahai gainean jarri ere borroka asko martxan daudela eta batu gaitzkeela.

Eta zu gurekin egotea nahi dugu.

## EGITARAUA

### MARTXOAK 1, ASTEARTEA

18:00 **KONGRESUAREN HASIERA ETA AURKEZPENA**

18:20 **BIZITZA JOKOAN**

Giza eta Naturaren Eskubideak defendatzen dituztenei babes-  
tea.

### MARTXOAK 2, ASTEAZKENA

9:30 **EUSKADIKO TALDE POLITIKOAK KRISI KLIMATIKOA  
ETA ESKUBIDE URRATZEEN AURREAN**

Mahai-ingurua euskal alderdi politiko nagusien ordezkariekin.

11:30 – 12:00 atsedena

12:00 **BORROKA KOLEKTIBOAK LURRALDEETATIK. Kasuak:**

- » Honduras: indarkeria eta jazarpena eskubideak defendatzen dituzten emakumeen gain
- » Estatu mailako parke eoliko eta energia berriztagarrien ezarpen eredu...horren garbia eta jasagarria ahal da?
- » Lurra, zulatuta eta txikituta: ikatz eta litio meatzaritza El Cerrejón-en (Kolonbia) eta Cáceres-en (Extremadura)

### MARTXOAK 3, OSTEGUNA

9:30 **KOMUNIKAZIO KRITIKOA KRISIEN AURREAN**

Komunikazioak Giza eta Naturaren Eskubideen urraketaren aurrean jokatzeko duen paperaz mahai-ingurua.

11:30 – 12:00 atsedena

12:00 **EREDU BATEN PORROTETIK, ALTERNATIBEN  
ERAIKUNTZARA**

Proposamenak Zientziaren eta Naturaren Eskubideen abiatuta.

13:30 **ONDORIOAK ETA ITXIERA**



**IZENA EMATEKO, PROGRAMA OSORIK  
ETA GONBIDATUAK:**

[www.mugarikgabe.org/eu/bizitza-jokoan-kongresua/](http://www.mugarikgabe.org/eu/bizitza-jokoan-kongresua/)

**KONGRESUA SAREAN ZUZENEAN JARRAITU DEZAKEZU:**

MugarikGabeONGD

**JARRAI IEZAGUZU:** [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org) | mugarikgabe

ARKAITZ RODRIGUEZ

# “Bakeak etsai boteretsuak ditu oraindik”



Kongresu politikoa amaitu eta militantziak Sortuko idazkari nagusi postuan berretsi berritan bildu gara Arkaitz Rodriguezekin (Altza 1979). Botoen %71rekin onartu berri duten *Herrigaia* ponentzia politikoan jaso dituzten ideietatik abiatuta egoera politikoaz mintzatu gara berarekin.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA  DANI BLANCO

## Zer moduz joan da kongresua?

Ongi, pozik gaude. Ildo politikoa zorroztu, antolaketa eremuan egokitzapenak egin eta zuzendaritza berritu dugu. Partida irabaztera atera gara, boterea lehia-tzera, bai kalean, baita instituzioetan ere. Ez ginen diskurtso autoerreferentzialak egiteko jaio, ezta beti kontrabotere izateko ere. Irabazteko jaio ginen, boterea eskuratu eta eraikitzeke Euskal Errepublika independente, sozialista, feminista, euskaldun eta ekologista.

## Parte hartzeko eskubidea zuten 7.936 lagunetik, %47,4ko abstentzioa izan da. Zer irakurketa egiten duzue?

Parte hartzea handia izan da: 4.164. *Zohardia*-n, *Abian*-en edo *Oldartzen*-en garaietan izan zenaren parekoa. Alegia, ezker abertzaleko eztabaida nagusien parean.

## Zuzendaritza berria hautatu duzue. Taldeak batez beste 40 urte ditu – gazteenak 25, helduenak 61–. Zer

## moduz doa belaunaldi aldaketa?

Mugimendu eraldatzaile batentzat funtsezkoa da belaunaldi arteko katea ez etetea. Gurean bermatuta dago. Oso zuzendaritza gaztea dugu eta horrek erakusten du antolakunde honek baduela erreproduktzioarako gaitasun handia.

## Zuen azken urteetako lanari osoko emendekin gisa planteatutako *Lurrari Lotuz* ponentziak 1.000 boto inguru jaso zituen (%22). Sumatzen zenuten militantziaren parte baten desenkantua?

Edozein antolakundetan normala da iritzi aniztasuna, Sortun ere hala da. Denok ez dugu berdin pentsatzen. Kongresu honetan osoko emendekin bat izan da, eztabaida sakona eta aberatsa izan da, eta emaitza oso argia: %71k *Herrigaia* ponentziaren alde egin du. Konparaziorako, *Oldartzen*-en alde egin zuen ehuneko bera eta *Abian*-eko emendekin partzialen aurka izan zena baino handiagoa. Hortik aurrera, ezker abertzalea gai izan bada



herri hau bizirik ekartzeko honaino, bere kidegoak funtzionamendu kolektiboaren urrezko araua beti oso presente izan delako da: ezker abertzalean guztiari buruz eztabaida daiteke, hala egiten dugu, modu gordinean egin ere batzuetan; baina behin erabaki kolektibo bat hartzen dugunean, kasu honetan bezala, guztiok erabaki horri lotzen gatzazkio.

## Barne mailan espazio politikoak edo korronteak antolatzeke aukerari bidea itxi diozue gehiengo handiz. Alderdiaren batasuna arriskuan jarzitekeela ikusi duzue?

Bai. Ulertu dugu eztabaidaren eta barneko hesioaren aurkakoa izango zatekeela.





Leialtasun zatikatuak sortuko zituzkeela eta aurrerantzean, eztabaidan aurrez aurre ideiak baino, aldez aurretik finkatutako posizioak eta leialtasunak jarriko zirela. Kidegoak erabaki argia hartu du horren aurka.

**Berria egunkarian eginiko elkarrizketan esan zuen “ezkerreko subiranismoak inoizko babes handiena du gaur, kalean nahiz instituzioetan”. Kalean ere bai? Ez duzue apaldirik sumatzen?**

Azken hamarkadetako mobilizazio handienak egin dira azken bost urteotan. Mugimendu feministaren eskutik, pensionistak, langile mugimendua, Altsasu

auzian gazteak, erabakitzeko eskubidearen alde Gure Esku Dagoren giza-kateak, Bilbon eta Baionan urtero preso en eskubideen, eta azken batean, preso en askatasunaren alde biltzen diren hamarnaka milaka lagunak; Ipar Euskal Herrian etxebizitza eskubidearen aldeko mugimendua... beraz, bai, ezkerreko subiranismoaren egitasmoak kalean ere inoiz ez bezalako babes eta bulkada du.

**“Euskal Errepublika sortzeko behar den herri prozesua sustatzea eta antolatzea da Sorturen egitekorik behinena”, diozue ponentzia politikoan. Estatuarekin talka demokratiko baterako bidea egin**

**nahi duzue?**

Gehiago zabal bat artikulatu beharra dago, bloke historiko subiranista eta aurrerakoi bat, egitasmo subiranista gauzatuko duena. Horretarako estatuak behartu beharko ditugu gure autodeterminazio eskubidea onartzera edo nahikoa baldintza eta indar harreman sortu euskal errepublikararteko bidea aldeba-karrez egin ahal izateko.

**Katalunian hala izan da.**

Bai. Ikusiak ikusita, litekeena da Espainiar Estatuak gure autodeterminazio eskubidea ez aitortzea sekula, nahiz eta guk ez diogun aukera horri bidea ixten. Ez gara ausartzen esatera hori ez dela

gertatuko, gerta litekeelako momentu batean estatuak baloratzea sezesio ziur bat galarazteko modu bakarra duela hori. Edonola ere, kasu batean zein bestean, berdina da egin beharreko bidea: egunetik egunera indar gehiago metatzea.

### Zenbateraino da inspirazio iturri Kataluniako mugimendua?

Kataluniatik hiru irakaspen nagusi atera ditugu: lehena, posible dela gehiengo sozial independentista bat eraikitzea, azkenerako termino elektoral eta instituzionaletan proiektatuko dena, eta instituzioak burujabetza berreskuratzeko prozesuaren mesedera jarriko dituen. Bigarrena, ikusi dugu aldebakartasunak bere mugak dituela, batez ere parean Espainiako Estatuak duzunean, eta ez

**“Presoena lehentasuna da prozesu subiranista zamatzeko erabiltzen ari direlako estatuak bahitu politiko gisa”**



Britainia Handia edo Kanada. Eta hiru-garrena, borondatea eta gehiengo sozial bat ezinbestekoak direla, baina ez aski; estrategia bideragarri bat behar da, plan egingarri bat. Eta beraz, guk ere behar dugu ahalik eta gehiengo zabalena, nazioartean ahalik eta babes handiena eta estatu egiturak, lehenago edo beranduago egin beharreko aldebakarreko jauzia al bait txikiena izan dadin.

### Nola ikusten duzue Kataluniako panorama?

Prozesua *in passe* egoeran dago, nagusiki Espainiako Estatuaren izaera antidemokratikoa eta inposatzaileagatik. Berezi ki, 2017az geroztik Kataluniako independentismoaren aurka, baina oro har Kataluniako herriaren aurka bideratu duen errepresioagatik. Independentismoaren egungo zatiketak ere ez du laguntzen. Eta hemen beste irakaspen bat: batasunik gabe ez dago aurrera egiterik. Ezinbestekoa da indar independentistek bide orri bat adostea.

### “Sortuk lan egingo du subjektu independentista eraldatzailea artikulatzeko”, diozue. Zer esan nahi duzue?

Sortuk lan egingo duela arestian aipatu

bloke historikoa artikulatzeko. Independentistak gara, baina sozialistak ere bai. Alegia, gure helburua da independentzia eta bestelako gizarte eredu bat eraikitzea. Bestalde, pentsatzen dugu independentismoak nekez lortuko duela gehiengo sozial baten babesa ez badu gehiengo horren ongizatea erdigunean jartzen. Alegia, estatu berriak gizarte eredu justuago bat ekarri behar duela. Horregatik mintzo gara subjektu independentista eraldatzaileaz, edo nahiago bada, bloke historiko subiranista aurrerakoiaz.

### Plan Feminista misio politikotzat hartuko duzue. Zertan datza?

Ez da hausnarketa berria, baina kongresu honetan gure konpromisoa indartu dugu. Sortu ez da gizartetik aparte bizi den uharte bat. Gizartearen parte gara eta zentzu horretan kontraesan berdinek zeharkatzen gaituzte. Guk ere gurean badugu bide luzea ibiltzeko gure antolakundearen feministizazioari dagokionez. Horretarako lan-tresna dugu Plan Feminista, bide orri bat da, bitarteko ugari aurreikusiz. Trebakuntzari garrantzi berezia eskaintzen zaio, emakumeen ahalduntzeari, eraso matxisten aurkako protokoloari eta planteamendu horren baitan kokatzen dugu barrura





zein kanpora begira Sorturen praxiaren feministizazioa sustatzea.

### **Nola irakurtzen duzue bizitzen ari garen pandemia garai nahasi hau?**

Pandemiak dena azkartu du. Gero eta zantzu gehiago dago esateko aro aldaketa batean gaudela. Kapitalismoaren garapenaren baitako ziklo oso baten amaieran eta une honetan ezaugarritzen ariko litzatekeen berri baten atarian, bidegurutze historiko batean. Rosa Luxenburgek ezagutarazi zuen leloak inoizko aktualitate handiena du: sozialismoa edo basakeria. Zibilizazio berri bat behar dugu, sozialista, bizitza eta haren zaintza erdigunearan jarriko dituen, kapitalismo neoliberalak planeta kolapsora daramalako. Egoera honetan arrisku handiak daude, baina baita aukera handiak ere herrien askapena eta gizarte eraldaketa helburu dugunontzat. Bataila horren emaitza ez dago idatzita, hein batean, egiten dugunaren arabera izango delako. Definizioz, dena da posible. Ez dira errepliegerrako garaiak, boterea esparru guztietan lehiatu eta euskal errepublikaren bidean urrats sendoz aurrera egitekoak baizik.

**“Besteen esperoan egoteak eragile zenbaitekiko menpekotasuna baizik ez du sortzen”, diozue EAJ eta ELA aipatuz. Maltzagako metafora -abertzaleen batasuna- oztupo**

### **bihurtua zen ezker abertzalearentzat aurrera egiteko?**

Bai, hein batean bai. Aliantza politika ulertzen genuen EAJrekiko akordio orokor eta estrategiko bat oinarri hartuta, eta hipoteka bihurtua zen. Orain egiten dugun apustua da askotariko akordio, elkarlan edo kolaborazioetan oinarritzea aliantza politika. Ezkerreko subiranismoak gai izan behar du askotariko akordioak egiteko, izan hauek handiak edo txikiak, estrategiko edo taktikoak, orokorrak edo partzialak, beti kriterio bera oinarri hartuta: akordioek balio behar dute laguntzeko gehiengo sozialen lan eta bizi baldintzak hobetzen, ezkerreko subiranismoaren egitasmoa indartzen, bere erreferentzialtasuna eta zentralitatea areagotzen, eta herri honen eta estatuen arteko indar harremana hobetzen.

### **Nola ikusten duzue Andoni Ortuzar buru duen EAJ?**

Iparra galduta, errentetatik bizitzen eta gainean ditugun erronka kolosal horiei aurre egiteko egitasmorik, grinik, lidergorik eta kapital humanorik gabe. Lidergo berri bat eskatzen du egoerak eta hori soilik ezkerreko subiranismoaren eskutik etor daiteke, hona ekarri gaituzten horiek nekez eraman gaitzakelako beste inora.

**EAJ iparra galduta? Zertan ari diren nahiko garbi dutela iruditzen zait...**

Duten egitasmo hori garaiz kanpo gelditu da: orain artekoa kudeatu eta segida ematea. Ikusia dago orain arteko eredu sozial eta ekonomikoak nora garamatzen, zein den emaitza. Aipatu ditudan erronka horiei aurre egiteko -belaunaldi artekoak, estrategikoak eta zibilizazionaltzat jotzen diren horiek-, eraldaketa handi bat behar da, norabide aldaketarik ez badugu egiten, pikutara goazelako. Egun indarrean den sistema planeta eta bizitza amildegiaren ertzera, kolapsora eramaten ari da. Zentzu horretan esango nuke EAJ ez dagoela aldaketarako eta ez duela egitasmorik.

### **Estatus berriaren eztabaidan, erabakitze eskubidea lege jasotzea onartuko dute?**

Duela ia lau urte EAJk akordioa sinatu zuen gurekin eta garbi jasotzen zen erabakitze eskubidearen instituzionalizazioa. EAJko kide hainbatek esana da, Joseba Egibarrek adibidez, erabakitze eskubidearen instituzionalizaziorik gabe, eta beraz, Espainiako Estatuarekiko berdinetik berdinerako harreman eredu bat instituzionalizatu gabe, ezin dela hitz egin estatus politiko berriari buruz.

**“Sezesiorako baldintzak sortu bitartean, jauzi hori bera egiteko, sektore estrategikoetan -telekomunikazioa, energia,**

**finantzak...- beharrezkoak diren tresnak garatzeko prozesu gisa ikusten dugu burujabetza prozesua” diozue. Katalunian ere, besteren artean, ondorio hori atera dute.**

Hala da eta horretan ari gara. Burujabetza prozesuaren oinarrietako bat da estatu egiturak sortzea.

**Prozesu independentistarako, zein gako gehiago ikusten dituzue?**

Aurrekoaz gain, nagusiki beste hiru. Batetik, indarren artikulazioa Katalunia eta estatutik gabeko gainontzeko nazioekin. Bigarrenik, instituziogintza subiranista. Ezkerreko subiranismoak ahalik eta instituzio gehien, baita gorenak ere, kudeatzeko apustua egin behar du, etengabe erakutsi behar duelako berak gobernatzen duenean gehiengoaren lan eta bizi baldintzak hobetzen direla. Azkenik, aldaketa soziala eta burujabetza bultzatuko dituen herri bulkada edo mobilizazio zikloa sustatzea, eta hori egin behar da askotariko krisiei kalerantz erantzunez eskuz esku borrokan ari diren eragileekin.

**Indarrak metatu eta artikulatu behar direla diozue. Zuen ezkerretara eragile berriak sortu dira, ordea, GKS edo mugimendu sozialista adibidez. Nola bizi duzue bere sorrera?**

Ezker abertzalearen hipotesi historikoaren ezeztapena da haien abiapuntua. Alegia, klase borrokak nazio askapen borrokaren forma hartzen duela Euskal Herrian. Begira, guk argi dugu klase borroka, eraldaketa soziala, borroka feminista, borroka antiarrazista, ekologista eta abar, nazio askapenetik pasatzen direla. Gure burujabetzaren eskuratzetik eta estatu propio baten eraikuntzatik pasatzen direla. Garbi dugu bide horretan gehiengo sozial independentista eraiki behar dela eta al baita akordio zabalenen eta transbertsalenen aldeko apustua egin behar dela. Eta garbi dugu bide hori ez dagoela pauso bakarrean egiterik eta tarteko geltokiak beharko direla. Herri honen askapena eta emantzipazio soziala bide horretatik etorriko dira, eta ez bestela.

**Lehen erabili duzun Rosa Luxemburgen aipu hori edukiz hustea edo diskurtso iraultzailea duen alderdi erreformista zaretela aurpegiratzen dizuete, besteren artean. Zuei ezkerretik egin kritikak eragingo dizue zuek ezkertera mugitzea?**

Nazio askapen mugimenduaren 60 urteotan ezagutu ditugu halako diskurtso eta planteamenduak izan dituzten hamaiika talde, halako kritikak egin dizkigutenak. Gure ezkerrean omen zeudenak, eta denborarekin, eskuinetik eta are oso eskuinetik pasatzen ikusi ditugunak. Guztiarekin, 60 urte geroago ezker abertzaleak hemen darrai. Talde horiek ez.

**Espainiako politikan gobernu zentralaren inbestidura blokean sartu zineten. “Oraindik dirauen aukera baliatu behar dugu eta euskal preso, iheslari eta deportatu politikoek etxeratzeari ekin, urratsak behin betikoak eta atzerazinak izan daitezten”, diozue. Moncloara PP edo/ eta Vox iritsiko balira presoekiko sortuko litzatekeen agertokiaren beldur zarete?**

Bai. Kaltegarria eta arriskutsua litzateke, baina ez soilik presoan aferarako, gehiengo sozialen lan eta bizi baldintzetarako edo herri honen interesetarako ere bai. Baita demokrazia ikuspegitik ere. Horregatik, agertoki hori ekiditen saiatu beharra dago. Eta aldi berean, badaezpada, agertoki horretarako prestatu, gauzatu litekeelako.

**Bateragarria da Espainiako Gobernuan espetxe politikan eragitea eta estatuarekin talka egingo lukeen olatu independentista bat martxan jartzeko lan egitea?**

Bai. Are gehiago, presoan auzia bideratzeak lagunduko luke ezkerreko subiranismoaren egitasmoa indartzen. Aukera emango lioke indar guztiak zeregin horretan jartzeko.

**Baina hori estatuak ere badaki.**

Bai. Presoena lehenetsuna da, ez dagoelako herri honetan elkarbizitza eta bakea eraikitzerik ehunka preso eta iheslari politiko edukita, eta aldi berean, estatuak presoak erabiltzen ari direlako bahu politiko gisa prozesu subiranista zamatuta eta zangotrabatzeko.

**Zentzu horretan, ezker abertzaleak eskuak lotuta ditu presoan gaiarekin?**

Ez. Presoak etxeratzea lehenetsuna da, baina gu ez gara borrokatzen presoak daudelako, borroka egiten dugulako daude presoak.

**Garaitu eta garailerik ez lukeela egon behar aldarrikatu zuen ezker**

**independentistak ETAk borroka armatua utzi zuenean. Hamar urte pasa diren honetan, Espainiako Gobernuak ez al du *de facto* jokatzeko garaile bezala? Besteren artean, zuen Bateragune auzia ere errepikatu nahi dute...**

Garaile batek ez luke horrela jokatu. Iratxe Sorzabal epaitzen aritzea, etakide konkretu batzuei auzi berriak ireki nahi izatea, Galder [Barbado] eta Aitor [Zelaia] epaitzea, Bateraguneko errepikatu nahi izatea... adibide ugari dira. Horrek erakusten du estatuan bakeak oraindik etsai boteretsuak dituela. Bake eta demokrazia agertoki bat galarazteko eginahalak eta bi egin dituzten sektoreak daude, baina ez dute lortu eta ez dute lortuko.

**Urriaren 18ko Aieteko adierazpenean esan zenuten: “Gure egiten dugu haien [biktimen] mina eta sentimendu zintzo horretatik baieztatzen dugu hura ez zela inoiz gertatu behar”. Iraganari uko gisa ulertu behar da?**

Ez. Urriaren 18ko adierazpena ez da iraganari begirako ekimena, bake eta elkarbizitza etorkizun bati begirakoa baizik.

**PSOerekin ari zarete Nafarroan eta estatuan akordioak lortzen, eta EAE mailan haiekin gobernu akordiorik ez duzuela baztertzen esaten duzue. Ikusten duzue PSE gogoz EAJrekin duten itunetik ateratzeko?**

Gaur gaurkoz, itxura batean, ez. Bihar, ikusiko dugu.

**Pandemiaren gaiari eutsiko diogu. Zer iritzi duzue Jaurlaritza egiten ari den kudeaketaz?**

Negargarria. Gutxi batzuen interes ekonomikoak lehenetsi dituzte jendearen osasunaren eta ekonomiaren kaltetan. Politika komunikatibo ezin kaskarragoa egin dute, noiz eta konfiantza transmititu behar zuten. Horrek hauspoa eman die era ugari garrantzitsuak jarrera negazionista eta konspiranoikoei. Gehituko nuke, Euskal Herriko ezkerrek bederen, ezin baitaiteke esan beste ezker batzuei buruz, asmatu egin zuela irizpide zientifikoak oinarri hartuta, hasieran neurri zorrotzak eskatu zituzten. Gogoan hartu behar da elite ekonomikoak eta Jaurlaritza izan zirela, besteak beste, neurririk hartu gabe ezer gertatu ez balitz bezala jokatu nahi izan zutenak. Ezker subiranistak asmatu zuen esanez pandemiari ezin zitzaiola soilik neurri

murriztaileekin erantzun, ezinbestekoak zirela bestelako neurri batzuk, hala nola osasun sistema indartzea, arakatzailen kopurua biderkatzea, murrizketek kalte-tutako sektoreak ekonomikoki sostengatzea eta abar. Azkenik, ezkerreko subiranismoak asmatu du berriki esaterakoan, azken olatu honetan hartu diren neurri batzuen helburua izan dela itxurakeria eta eztabaidaren fokua desbideratzea.

### Imajinatzen dut besteren artean COVID paseaz ari zarela. Zein da zuen irakurketa pase horretaz?

Eraginkortasuna oso zalantzarria eta oinarri zientifikorik gabea dela. Frogatu da ez zuela balio kutsatzeak ekiditeko, ez bederen azken aldaera honekin. Eta izatekotan, txertaketa areagotzeko balio zuela eta horretan ere, nahiko mugatua izan da, ikerketa batzuen emaitzak iku-

sita. Eztabaidaren fokua desbideratzea zuen helburu, kanpoan maskarak ezartzeak bezala, ez zedin hitz egin eztabaidaren ardatza izan behar luketen beste gai horiez: txertoaren unibertsalizatzeaz, osasun sistemaren indartzeaz, lehen arre-ta indartzeaz, plantillen lan baldintzak duintzeaz, ezinbestekoa den sakoneko norabide aldaketaz. Pandemia bera ere

## “EAJrekiko akordio orokor eta estrategikoa bilatzea hipoteka bihurtua zen”



badelako indarrean dagoen sistema sozial eta ekonomikoaren ondorio.

### Pasea bera arre-ta desbideratzeko mekanismoa izan dela esaten duzuenean, ulertzen duzu paserik gabe utzi dituztenak haserre egotea zuekin, beren eskubide murrizketa salatzen ez duzelako?

Gu kezkatuta gaude ezkerreko sektore batzuk eskuin muturraren agenda eta askatasunaren ikuspegi liberala bere egiten ari direlako. Askatasunaren bi kontzepzio daude: liberala eta sozialista. Lehenak norbanakoa jartzen du erdigunean, bere eskubide eta askatasunak. Eta bigarrenak, askatasun eta eskubide kolektiboak. Gu sozialistak gara, interes kolektiboak indibidualen gainetik jarri behar direla uste dugu. Egoera batzuetan eskubide indibidualak murriztu beharra dagoela uste dugu, interes kolektiboaren mesedetan. Guretzat askatasuna ez da pandemia baten erdian, bakarren batek aldarrikatu zuen bezala, [Isabel Díaz Ayuso Madrilgo komunitateko presidenteak] kañak edateko askatasuna edo beste hark esan zuen bezala [Jose María Aznar Espainiako presidente ohiak] nahi beste ardo edan eta autoa hartu ahal izatea. Guretzat askatasuna da mundu guztiak, adibidez, osasun eskubidea bermatua izatea eta txertoa hartu ahal izatea. Eskubideek zaugarrienak babestu behar dituzte, bestela ez dira pribilegioak baizik.

### “Askapen mugimenduak ikuspegi dekoloniala barnerratu behar du”, diozue migrazioei buruzko ildo politikoa finkatzean. Aurten 500 urte beteko dira Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman ziola, eta bere figurari buruzko eztabaida dago. Zein da zuen posizioa?

Ezin daiteke Elkanoren eta bere figuraren apologia akritikoa egin. Kontziente izan behar dugu gure kokapen geografikoa eta geopolitikoa medio, izan dugula eta badugula ardura beste herri batzuen oinperatzearekiko edo subalternitatearekiko. Baina aldi berean, uste dugu gu ere herri oinperatua garela, hein batean, kolonizazioa ere pairatutakoak eta zentzu horretan ezin utz diezaiekegu estatuei gure herriaren itsas ondarea eta kapital sinbolikoa bereganatzen. Beraz, uste dugu hur-bilketa kritikoa egin behar dela Elkano eta beste figura historiko batzuekiko, eta hori horrela eginik, posible dela egitasmo askatzaile baten osagai bilakatzea. ●

# COVID luzeena

COVID iraunkorrak milaka pertsonen bizitza aldatu du. Zenbait ikerlanen arabera, gaixotasuna pasatu dutenen %10-15i eragin diezaike. COVID iraunkorra dutenen sintomek, hasierako infekzioa eta gero, astetan edo hilabetetan irauten dute, edo tarte batean sintoma horiek gabe egon ondoren, berriro agertzen dira. Infekzioa gainditu dute, baina bizitza aldatu zaie. Neke kronikoa, zefaleak, antsietatea, sukarra, muskuluetako mina, nahasmendua, arnasteko zailtasuna, mugikortasuna, apetitua, usaimena eta dastamena galtzea, erupzioak, ilea galtzea, txistuak barne-belarrietan, lehortasuna begietan, konjuntibitisa, palpitazioak, beherakoa... COVID-19arekin gaixotu izanaren ondorioak ez dira beti alta jasota desagertzen.

 ALFONS RODRÍGUEZ

Alfons Rodríguez fotokazetari katalanak hainbat kasuren jarraipena egin eta iaz *Revista 5W* agerkarian kaleratutako artikulu eta argazki sortaren zati bat ekarri dugu gurera, euskaratuta.

## CARLA MARTÍNEZ ↓

Carla Martínezek 27 urte ditu eta aukeratu egin behar du: erosketak egin ala dutxatu. Hilabeteak dira ezin dituela biak bata bestearen atzetik egin. Cardedeu-ko (Bartzelona) erizain hau lehen olatuan kutsatu zen eta ingresatuta egun pare bat besterik ez zituen eman. Baina okerrera gero etorri zen. Alta jaso arren, sintomek iraun egiten zuten. Bost hilabete eman zituen ohean, ezin mugitu, eta medikuarengana gurpildun aulkian joan behar zuen. Ez zuen ulertzen zer gertatzen zitzaion.

Hilabetetan zalantzak ezin argitu egon ondoren, 2020ko

uztailean Can Ruti-ra eraman zuten, Kataluniako COVID iraunkorreko lehenengo unitatera. Halaber, azaroan errehabilitazioa egiten hasi zen Guttmann Institutuan, neuroerrehabilitazioan espezializatutako Bartzelonako zentroan. Esan zioten jende asko zegoela, osasungintza publikoak soilik bi hilabetetako tratamendua hartzen zuela bere gain eta gero bere kabuz beste aukera bat topatu beharko zuela.

Nekeak ia egun osoa jaten dio. Horregatik, sofan etzanda egon ohi da eta irakurtzen ahalegintzen da, horrek ere buruko mina eragiten dion arte. Kutsatu eta urte bete baino gehiago igaro denean, sintomek irauten dute, eta laino mental moduko bat nabaritzen du, gauza asko ahaztea eragiten diona.

Carla oso aktiboa izan da beti eta, orain, ordu erdiz ibil baldin badaiteke, gaitzerdi.



## ÈLIA DOMÈNECH →

Pandemiaren hasieran birkokatu zuten 33 urteko pediatria hau –“ia denak bezala”– eta ZIUan aritu zen lanean. Gogoan du, orduan dena hain prekariora zenez, 2020ko apirilaren 7rako kutsatuta zegoela, eta Laia bikotekidearekin konfinatu behar izan zuela, hura ere pediatria. Sintoma kliniko arinak zituen eta, beraz, segurutzat jo zuen aste pare batean berriro lehenengo lerroan egongo zela. Orduz geroztik urte eta erdi joan dira ia, eta, bizi kalitatea berreskuratzen hasi den arren, oraindik ezin izan da lanera itzuli. Inguruaren kontrola oraindik ez daukala dio, antolatzea, planifikatzea edo bi gauza batera egitea kostatzen zaiola. Arnastua eta nekea dauzka, baita laino mentala esaten zaiona ere, COVID iraunkorra dutenen artean oso ohi-koa den sintoma.

Igualadan, Sant Jordiko eguneko ospitalean, programa esperimental batean parte hartzen ari da Èlia. Programak 3D errealitate bidezko murgiltze-errehabilitazio neuropsikologikoa erabiltzen du sistema kognitiboa estimulatzen laguntzeko. Gainera, astean bitan fisioterapiara joaten da. Gehien sumatzen duena neke muskularra da eta horrek ez dio uzten normaltasunez ia ezer egiten.

Osasun sistemak COVID iraunkorra duten pertsonen kolektiboa erabat abandonatuta daukara uste du. “Eta nik behintzat aukera izan dut mugitzeko, harremanak izateko, ulertzeko eta hainbat errehabilitazio programatan sartzeko”. Laiarekin egiten dituen pasealdi laburretan, maiz gelditu behar du arnasa hartzeko. Etxean baratzea eta oilo batzuk zaintzen dituzte. Baina analgesikoak eta bestelako espektro zabaleko sendagaiak Èliaren bizitzaren parte dira orain.





### JULIÀ MATA ↑

Julià Matak 75 urte ditu eta 2020ko azaroan ingresatu zuten Manresako Althaia fundazioaren ospitalean; hainbat egun eman zituen ondoezik eta, azkenean, konortea galdu zuen. “Ziplo erori nintzen”, dio ahots zakarrez, birusak ahots kordetan utzitako arrastoa nabarmen. Bi hilabetez egon zen ZIU-n eta gaixotasuna gainditu zuen, baina ondorioek oraindik ez diote utzi Bartzelonako probintziako ospitaletik irteten. Hamar hilabete dira han dagoela eta horietatik zazpitan ez zuen emaztea ikusteko aukerarik ere izan.


Eguneroko errehabilitazioari esker, Julià pixkanaka bere kabuz moldatzen hasi da berriro. Dagoeneko gai da eskor-

ga erabili gabe ibiltzeko, eskuekin objektuak heltzeko eta bakarrik dutzatzeko. Indarrak xahutzen ditu korridorean gora eta behera, eta nekatzen denean, gelara itzultzen da.

Noizean behin poz hartzeko aukera dauka, duela mende bat —1922an— sortu zen Foment Excursionista de Catalunya elkarteko presidente zeneko garaia gogoratzeko. Poz hori zentzoko seigarren solairuan dago, teilatulan. Ez da toki eroso, aireztapen makinez eta metalezko hodiz beteta baitago, baina Juliàrentzat mundura zabaldutako leihoa da: debekatua egon ohi den arren, azken hilabetetan zaindu duten osasun-langileek laguntzen diote gora igotzen.

### MAR CUBERES ↓

Mar 14 urteko neskatoa da eta 7 urte zituela hasi zen bibolina jotzen, baina 2020ko martxoan COVID-19a hartu zuenean jotzeari utzi zion, nekatu egiten zelako eta asko kostatzen zitzaiolako mugimenduak koordinatzea eta kontzentratzea. Orain berriro bibolina jotzen hasteko ahaleginetan ari da, pianoarekin batera, musika tresna horren zale amorratua ere badelako. Oraindik kosta egiten zaio ariketa mentalak egitea: “Ikasten edo etxeko lanak egiten bi edo hiru ordu ematen ditut lehen ordu bakarrean egiten nuena egiteko”. Orain, egunero arnasketa eta indarberritze ariketak egiten ditu etxeko egongelan, zinta elastikoa, espirometroa eta halako tresnez lagunduta.





Ikasturtean zehar, Tremp-eko María Inmaculada eskolan, Marrek bi aurre-sinkope izan zituen, baina, ikaskideen eta irakasleen laguntzaz, emozionalki gogorra den gaixotasunaren etapa gainditu zuen. Medikuek uste zuten anemia zuela. Gero esan zioten agian bertigoa, esfortzuagatiko asma edo arritmia zela. Aurrerago, hazkundeak eragindako zorabio basobagala izan zitekeela. Sukarra, azkura, gorakoa, giharretako kontrakturak, hilekoaren gorabeherak eta beste sintoma asko izan zituen. Luze jo zien COVID iraunkorra diagnostikatzeko. Duela hilabete hasi zen Can Rutin errehabilitazioa online egiten, baina oraingoz ez du hobekuntza nabarmenik sumatu. “Besoetan min dut, toraxaren ezkerrean sastadak ditut eta asko nekatzen naiz”.

Idaztea oso gustuko duenez, bere istorioa berak idazteko eskatu nion: “2020ko azaroaren 19an COVID-19a Trempeko zaharren egoitzan sartu zen. Egunero, pixkanaka Núria amak men-

talizatu ninduen gerta zitekeela, baina esan zigutenean negarrez hasi nintzen. Han zegoen amona eta, oso zaharra denez, edozein momentutan deitu ahal ziguten hemen ez zegoela, hil zela esanez. Hala ere, nire subkontzientearen zati batek bazeukan itxaropena onik irtengo zela, eta halaxe gertatu zen: 89 urterekin, COVID-19an positibo asintomatikoa izan ondoren, bizirik atera zen”.

### MARC TORRENT ↓

13 urte bete bezperan gaixotu zen Marc, 2021eko urtarrilaren 22an. Alacelles-eko (Lleida) nerabe honek kirol asko egiten zuen eta Jarduera Fisikoa-ren eta Kirolaren Zientziak ikastea zen bere ametsa, hala, bere pasioa ogibide bihurtzeko. Baina COVIDa iritsi zen. Hasieran ito eta nekatu egiten zen, eta zorabioek eta nekeak eragindako gainbehera fisikoari antsietatea, depresioa eta kontzentratzeko gaitasunik eza gehitu zitzaizkion. Gurasoek ez zuten ulertzen zergatik ez zen sendatzen hainbeste

denbora igarota, eta Imma amak zaintzaile soziosanitario lana utzi behar izan zuen semearekin etxean geratzeko, zaintzeko eta medikuarengana laguntzeko.

Bere kasua ez da besteen berdina, eta bitxikeria da berez arraroa den gaixotasunaren barruan. Marcek oinetako azalean lesioak izan zituen, hilabetetan ibiltzea zaildu zioten babak, astanafarreriak eragin ohi dituenaren antzekoak. Esan zidan unerik txarrean ezin zituela oinak lurrean jarri. Behatz izoztuen sindromea esaten zaio horri. Hobera egin zuenean, patinetean joaten zen eskolara, eta autoz itzuli, baina kirolari uko egin behar izan zion guztiz.

Can Rutin errehabilitazioa egiten hasi zenean aldatu zen dena. Duela hilabete batzuk, berriro bizikletan ibiltzen hasi zen, nahiz eta denbora gutxian izan, eta igerian eta frontoian ere hasi da pixkanaka-pixkanaka. Ondorio fisikoak hor daude oraindik, baina Immak uste du ondorio psikikoak sendatzeko ere denbora beharko duela. ●



“Txertoa hartu  
nuenetik ia urtebetera,  
oraindik ez naiz gai  
bizitza normala egiteko”

## Eneritz Zubiaurre

COVID-19aren aurkako txertoak kaltetua

Eneritz Zubiaurre irakaslea da, eta lan eremu horretan egin zen gizarteko lehenengotako txerto deiarri erantzunez, zitzada hartu zuen 2021eko martxoaren 14an. Astra Zeneca egokitu zitzaion. “Inork, ezta txertoa jarri zidan erizainak ere ez zidan ohartarazi izan nitzakeen ondorioez. Besterik gabe ilaran jarri nintzen, eta txertoa hartu nuen”. Egun horretatik oso kaltetua du osasuna. Osakidetzako medikuei diagnosi egokia egitea asko kostatzen zaiela esan du (polineuropatia dauka), “kausa txertoa izan zitekeela onartu nahi ez zutelako”. Egoera berean direnekin harremanetan jartzea gustatuko litzaioke, gizarteak pertsona hauen aurrean ezikusia egiteari utzi diezaion eta denen artean txertoen ondorioen erantzukizunak exigitu ditzaten. Bi alaba txiki ditu, eta haiekin jolastuz deskubritzen du unean unean noraino mugitu dezakeen bere gorputza, eta noraino ez.

**E**spero zuen ondoezik ematea lehen bi egunak, ez ondorengo urtea: “Nire aurretik, nire lankideak txertoa hartuta zeuden, eta bi egun-edo egon ziren ohean. Txertoa hartu eta hamabost minutu horietan ez nuen ezer nabaritu. Baina hurrengo egunean, ezin nintzen ohetik altxatu. Kalentura oso gutxi eduki nuen, 37 eta erdi, eta uste nuen nire lankideena bezalako paliza zela, eta bi egunera-edo pasatuko zela”.

Igande batez hartu zuen txertoa, eta ondorengo astean sasoiak baldan behera joan zitzaion: “Astehenean gaizki nengoan, asteartean okerrago, asteazkenean okertzen, ostegunean okertzen... Eta okertzeak esan nahi du lo nengoela. Egunean 17 ordu lo egiten nuen. Nekea zen sumatzen nuena. Norbaitek hitz egiten bazidan, ezin nituen begiak ireki ere egin. Ahotsa ere oso-oso baxu, ia galduta neukan. Nik logura neukan, ez nintzen kontziente gertatzen zitzaidanaz, eta uste dut nik baino okerrago etxekeok pasatu zutela: gurasoak ez ziren pandemia osoan gure etxera etorri, eta egun horietan aldiz, sei-zazpi ordu egon ziren egunero, niri begira”.

Ostiralean etxekeok larrialdietara eramane zuten. Osakidetzan analitika bat egin zioten, oxigeno saturazioa begiratu, plaka bat ateratu... “Dena ongi zegoela esan zida-

ten eta etxera bidali ninduten”. Hurrengo egunean are okerrago sentitu zen: “Eztularekin hasi nintzen, arnasa hartzea kosta egiten zitzaidan... Eta berriz ere larrialdietara joan ginen. Kortikoida sartu zidaten zainetik eta kortikoide tratamenduarekin etorri nintzen etxera”.

Zazpi eguneko kortikoide tratamenduak esna eusten zuela azaldu du, “baina hala ere neke handia sentitzen nuen. Oso zurrun ibiltzen nintzen, oso-oso poliki, hankak ia lurretik altxatu gabe... Hilabete egon nintzen etxetik atera gabe. Ez nekien nire gorputzarekin zein mugimendu egin nitzakeen eta zein ez. Hankei agintzen nien altxatzeko baina ez zidaten erantzuten. Baso bat ur edateko, ezpainak eramaten nituen mahai gainean zegoen basora eta eskuekin edalontzia inklinatu soilik egiten nuen, ez nuen indarrrik baso ura altxatzeko. Ezin nituen hankak eta besoak mugitu. Hilabete batera oraindik ezin nituen eskailerak igo. Hiztegia ere galdu nuen, hizketan hasi eta hitz ximpleak gogoratu ezinik geratzen nintzen, 'aulkia', 'motxila', esaterako. Hori nekatuta nengoen gertatzen zitzaidan”.

Deban bizi da eta maiatzean hasi zen etxetik lehen irteerak egiten: “Etxetik oinez 200 metro urrutiratzeko gai nintzen, ez gehiago. Oso itsasozalea naiz, eta itsasoa ikustera kotxez eramaten ninduten, eta lehen bainua egitera ere kotxez eraman eta laguneren artean besotan jaitsi ninduten, maiatzean. Oraindik ez naiz gai kotxea gidatzeko”.

Ekainean eta uztailean, mantso-mantso ibili ahala, pixkanaka indarra berreskuratzen joan da. “Irailean lortu dut eskuak ixtea eta beso bata eta bestea txandaka mugitzea (alternatzea)”.

Sasoiko emakumea da Eneritz, ez da geldi egotekoa. Pandemia aurretik askotan egiten zuen Debatik Mutrikura joan-etorria, bikotekidearekin eta umeekin: “Hori noiz egingo dut berriz? Ez naiz gai”. Argi eta bare hitz egiten du eta indar atsegina dario, baina gordina da bere egungo errealtatea: “Bizitza salbatu behar zigun txertoak izorratu dit niri bizitza. Ezin izan naiz nire umeekin bakarrik gelditu hilabete asko pasatu diren arte. Goizean hondartzara joaten banintzen, arratsaldean jada ezin nuen ezer egin, eta udan laguntza behar izaten nuen hondartzatik bueltan etxera iristeko ere. Egun ere ez naiz gai etxetik kanpo luze egoteko, denbora asko egon behar naiz eserita, eta aldapak robot baten modura igotzen ditut, izugarri kosta-

tzen zait. Ni ez naiz lehengo Eneritz. Oso positiboa izan naiz beti eta aurrera egin dut, baina tristura puntu hori barruraino daukat sartuta”. Bere ekinez berreskuratzen dezakeen guztia lortuko duela ziur dago, baina hortik aurrera bere etorkizuna misterio handi bat da: “Aurrera begira, esaten didate errehabilitazioarekin pixkanaka joango naizela gaitasunak berreskuratzen, baina ez dakite zein punturaino, txertook berriak direlako. Nire etorkizuna ziurgabetasun hutsa da. Eta nire kezka da inoiz gehiago ez naizela lehengo Eneritz izango, inork ez baitu horren erantzunik. Agian, datorren Eneritz hau onartze bidean nabil. Horrek ez

du esan nahi ongi jartzeko borrokatzen ari ez naizenik. Baina dagoena onartu behar dut eta momentuan momentuan, ahal denaz gozatu”.

Poza nabari zaio errehabilitazioarekin berreskuratzen duen guztia konstatzen duenean: “Lehen ezin nuen lauhankan egon, ezin nuen hanka puntetan jarri, ezin nituen hatzak mugitu, ezin nituen hanka ezkerre eta esku eskuinta aldi berean mugitu, ezin nuen trabeska ibili... Ez nintzen ohean gelditu, oso argi neukan egunero saiatu behar nuela, eta arrastaka joaten nintzen sofara arte, umeekin jolasten nintzen ahal nuen bezala... Lehen momentutik nahi



nuen ongi jarri, eta sinesten nuen ongi jarriko nintzela. Pentsa zein sinetsita nengoen, astero deitzen niola lantokira nire ordezkoiari esanaz ‘agian hurrengo astean itzuliko naiz lanera’. Pentsa buruan zer neukan eta zenbat kostatu zaidan dagoena onartzea. Aurten, aldiz, nire ordezkoiari esan nion ez naizela ikasturte osoan itzuliko. Nahi bai. Baina kontziente naiz dagoenaz”.

Baina bada gauza bat txertoak hondatu ez diona: “Ni oso soziala naiz, eta horri eutsi diot, kalera eramaten ninduten, eta ni pozik kafea hartzera!”.

### “INORK EZ ZUEN IKUSI NAHI ZERENA ZEN”

“Lehen bi asteetan medikuak COVID ote zen frogatu nahian aritu ziren. PCR proba pila egin zizkidaten. Inork ez zuen ikusi nahi zerena zen, nahiz eta txertoa hartu eta biharamunean gaixotu nintzen”.

Osakidetzak jarri zion kortikoide tratamendua astebetara bukatu zitzaion, eta baja luzatu eta luzatu, ez zerurako eta ez lurrerako geratu zen, beste tratamendurik gabe. Familia medikuak nola zegoen galdezka deitzen zion eta bere babesa sentitu du: “Familia medikua saiatu da, bazekien nola nengoen eta esaten zidan ez inori uzteko esaten buruko gaixotasunik neukanik. Emakumeoi askotan hori egozten baitzaigu, horregatik definitzen dut nire burua, gaitz honekiko, 41 urteko emakumea. Gure hitza auzitan jartzen da”.

Maiatzean ikusi zuten lehen aldiz Osakidetzako bi espezialistak: pneumologo batek eta kardiologo batek. “Nire gaitza neurologiari lotuta dago, beraz, bi espezialista horiek sumatzeko ezer ez neukan. Pneumologoak, gaixotu eta ia bi hilabetera oraindik izorratuta ikusi ninduean, zera bota zidan: pertsonok batzutan gaixotasunak asmatzen ditugula. Nik esan nion, hasteko, izen bat neukala, ez zela egia esan zuena eta aurpegira begiratzeko. Nire erantzunarekin ikusi zuen ez nengoela burutik gaixo, eta esan zidan laguntzeko prest zegoela, eta nik esan nion ez nuela bere laguntzarik behar, nahiago nuela beste profesional batekin egon, beharko banu. Eta joan egin nintzen”.

Martxotik uztaileira diagnostikorik gabe egon zen: “Nire familia medikuak esaten zidan txertoak eragindakoa izan zitekeela, baina ziurtasunik gabe... nire sistema immunologikoa baxu zegoela eta COVID iraunkor batean bezala zegoela esaten zidan, baina dena airean”.

Uztailean beste mediku batera joatea erabaki zuen, bide pribatura: “Artatu ninduen mediku kolegiatua da, baina horrez gain akupuntura, nutrizionismoa eta medikuntza integratiboa eskaintzen ditu. Ikusi ninduen, galdera sorta bat egin zidan, eta ordu erdian esan zidan neurologo batek aztertu behar ninduela, polineuropatia bat neukala: hau da, nerbio sistema periferikoan blokeo bat eduki nuela, desajuste bat. Zergatik detektatu zuen hain azkar? Argi zeukalako txertoek askotan ondorioak dituztela, hau da, mediku bezala, onartua zeukan aukera hori bazegoela. Diagnostiko horrekin joan nintzen familia medikuarengana, astebetara eman zidaten neurologoarekin hitzordua eta neurologoak urgenteki eskatu zuen erresonantzia magnetikoa, abuztu bukaeran egin zidatena.

Ea patologiarik neukan begiratu zidaten, analitika zehatz batzuk ere bai... Goitik behera begiratu ninduten eta ikusi zuten ez neukala inolako patologiarik ez lesiorik. Txertoa hartu eta lehen bi asteetan agian nire gorputzean zer gertatu zen ez dugula jakingo ere aipatu zi-

dan, froga neurologikorik egin ez zelako. Kostatu zaie medikuei onartzea nondik zetorren, eta azkenean familia medikuari eskatu diot idatzi dezala zergatik ezin dudan beste txerto dosirik hartu. Urta-rrilaren 3an idatzi du medikuak”.

Geroztik neurologoak egiten dio jarraipena, hitzordu batetik besterako epeak oso luzeak badira ere: “Urrian ikusi ninduen azken aldiz eta hurrengo hitzordua ekainaren 15erako eman dit”.

Zubiaurrek argi du errehabilitazioak salbatu duela: “Ekainean eskatu nuen Osakidetzan errehabilitazioan hastea, baina ez zekitenez zer neukan, beldurra ematen zien hasteak eta ukatu egin zidaten. Medikuei integratiboak esaten zidan mugimenduaren bitartez nerbio-sistema itzultzen dela. Irailean errehabilitazio pribatuan hasi nintzen nire kasa, eta Osakidetzan bigarren ez errehabilitazioa eskatu nuen eta azaroan hasi naiz Osakidetzan. Errehabilitazioarekin beste pertsona bat naiz”.

### “BOTIKEN AURKAKO ERREAKZIOA” AITORTUA DU, BAINA PASAPORTERIK EZ

Zubiaurreren lehenengotako bajan jadanik jartzen du bere egoeraren motiboa “txerto-osteko erreakzioa BAE (botiken aurkako erreakzioa)” dela. “Niri familia medikuak onartzen dit momentuz ezin dudala beste dosirik hartu. Beste mediku batzuek esaten didate ez orain eta ez gero, besterik ez hartzeko, ziur daude-

“Nork hartzen du ni horrela egotearen erantzukizuna?”



**KONTULTAREN ARRAZOA / MOTIVO DE CONSULTA**

Paciente de 40 años que acude por disnea.

**AURREKARIAK / ANTECEDENTES**

- No alergias medicamentosas conocidas.
- No antecedentes médico-quirúrgicos de interés.
- No tratamiento médico habitual.

**EGUNGO HISTORIA / HISTORIA ACTUAL**

Vacuna AstraZeneca el sábado. Posiblemente cuadro de fiebre, astenia y malestar. Desde hace dos días tos seca, afonía y sensación de asma que persisten. No dolor torácico. No edemas en extremidades. No otra clínica.

**MIAKETA FISIKOA / EXPLORACIÓN FÍSICA**20/03/2021 15:46 PA, 138/83 FC 67 Temp 38,7 SO2 96 FR 12  
CYO, BHP, Normoclorreada, Eupnéica.

CC: no IV

Torax: AP: mvc sin ruidos sobreañadidos. AC: Rítmico

Abdomen: rha+. No doloroso. No palpo masas ni visceromegalias. Femorales presentes y simétricos.

EEI: no edemas ni signos de TVP

**PROBA OSAGARRIAK / PRUEBAS COMPLEMENTARIAS**

1. EKG: Rs a 75x', sin alteraciones de la repolarización
2. RX TORAX: no cardiomegalia, pinzamiento de senos costodiaphragmáticos ni consolidaciones parenquimatosas
3. ANALÍTICA

Sin Sección

Sin-Índice de oxigenación PaFi 471 mm Hg &gt; 400

**BIOQUÍMICA GENERAL****BIOQUÍMICA SUERO**

Srm-Glucosa	103 mg/dL	70 - 110
Srm-Urea	22 mg/dL	10 - 65
Srm-Creatinina	0,72 mg/dL	0,40 - 1,00
Srm-Sodio	139 mEq/L	135 - 145

**SINATURA / FIRMADO**

SINADURA DATA / FECHA FIRMA: 20/03/2021

SINADURA ORDUA / HORA FIRMA: 19:11

**1. ARDURADUNAREN IZENA / NOMBRE RESPONSABLE 1:**

la eragingo didala, eta bigarren dosiak eragin ahal dit okerrago (zer izango ote litzateke okerrago?), edota pixka bat hobeto. Ia urte pasatu da eta oraindik ez naiz gai bizitza normala egiteko. 'Botiken aurkako erreakzioa' jasan dut".

Baina hala ere ez diote COVID pasaportetik eman, dosi guztiak hartu ez diutelako. Argi utzi nahi du bere jarrera: "Pasaporte horren kontra nago erabat. Nola jausi gara eta nola onartu dugu hori?". Baina pasaportea ezarri duen erakundea bere kontraesanetan zirikatzeko asmoz, pasaportea eskatzeko bide denak arakatu zituen bere garaian: "Abenduaren 15ean emaila idatzi nuen Arartekora, Osakidetzara, Zuzenean herritarren arretara, eta Jaurilaritzako Osasun sailera. Nire kasua azaldu nuen bertan, eta eskaera egin nien, ea COVID pasaportearantz zer alternatiba ematen zidaten". Geroztik, Arartekoak idatziz erantzun zion espediente irekiko ziola eta hori Osasun sailari zegokiola eta haiei pasatuko ziela kasua. Abenduaren 23an Osasun sailak idatziz erantzun zion: "Eskaera dagokion zerbitzura bideratuko dugu eta handik erantzuna jasoko duzu zure posta elektronikoa". Eta iritsi zen erantzuna: "Zure emailari dagokionez, jakinarazten dizugu kontraindikaturatu baduzu eta beraz, ziurtagiria lortu ezin baduzu, probaren ziurtagiria atera dezakezula: PCR eta antigenoa". Zubiaurrek email horri erantzun zion galdetuz ea zein osasun zentro publikora joan zitekeen test horiek egitera, eta jaso zuen erantzuna hau da: "Zure emailari dagokionez, laborategi pribatuetakoa proba negatiboa bakarrik

izango dute balioa. Osakidetzan egindako probak salbuetsita daude".

Pasaportearekin izandako gorabeherak erkarri diote pasarte mingotsik: "Nire herrian bertan gertatu zitzaizkidan, Gabonetako parke horietako bat jarri zuten frontoian, umearekin joan eta kanpoan geratu behar izan nuen. Uste dut gauza hauek ukitu didatela gehien nire egoera animikoa. Elkarri oztupoak jarri behar al dizkiogu, elkarri lagundu beharrean? Egoera batean jarri gaituzte, zeinetan gizatasun osoa galtzen ari garen".

**"OSO BAKARRIK ETA BABESIK GABE SENTITU NAIZ"**

Halaxe adierazi du: "Oso bakarrik eta babesgabe sentitu naiz, eta oso zaila izan da medikuek onartzea zer zen, argi eta garbi zegoen arren zeren ondorio izan den. Irailean urtebeterako baja eman zidaten, eta hain baja luzea emateko zer uste dute bada daukadala?".

"Eta gizartean ere guztiz baztertua sentitu naiz. Txertatutako eta txertatu gabekoen dikotomia honetan sartu gaituzte, eta ni bezalakoak non gaude? Gauzak ez dira ez zuriak ez beltzak. Saiatu behar gara goikoek nahi duten horretan ez erortzen, zeren hemen denok ari gara sufritzen. Norberak egin dezala bere aukera, aukera guztiak dute bere arriskua, eta besteak epaitu gabe. Kurioa da gertatu zaidana, jendeak uste zuen COVIDagatik nengoela horrela. Esaten dudanean txertoagatik dela, denak isiltzen dira. Ia-ia ez didate galdetzen zer moduz nagoen ere; elkarrizketa bukatu da. Ez dugu errealitate hau ikusi nahi, beldurra ematen digulako. Eta niretzat



Osakidetza

DEBAKO OSASUN ZENTROA  
C.S. DEBAENERITZ  
ZUBIAURRE ITUARTE  
IKK / CIC - 10158296**TXOSTENA**

Eneritz tras vacunación el 14/03/2020 con primera dosis de vacuna astra zeneca de covid 19 inicia clínica de polineuropatía que le impide realizar vida normal con gran afectación de su calidad de vida y dado el estado en el que se encuentra como consecuencia directa de la vacuna, no se le recomienda en principio vacunarse de siguiente dosis hasta recuperación completa.

astelehena, 2022(e)ko urtarrilaren 3a

Ezkerreko argazkian, 2021eko martxoko Osakidetzako txostenean aipatua da txertoa. Eskuineko argazkian, Osakidetzako medikuak 2022ko urtarrilean sinatu duen txostena, Zubiaurreri guztiz sendatu arte beste dosirik hartzea ez zaiola komeni adieraziz.

hori oso gogorra da. Edo 'suerte txarra izan duzu' entzun beharra; bai, kontxo, hala da, baina ematen da! Edo 'ziur zaudete txertoagatik dela?' esan du batek baino gehiagok kalean".

Bere kasua albo-kalteen artean onartua izan dadin borrokatzen ari da: "Bete dut Espainiako farmakobijilantziako formularioa, baina ez dakit kontuan hartu duten edo ez".

**"EZ NAIZ BAKARRA"**


"Gustatuko litzaidake txertoak kaltetutako beste pertsonekin harremanetan jartzea. Ez dut uste bakarra naizenik", adierazi du Zubiaurrek. Izan ere, Osasun publikoko hainbat langilek esana dio bere kasua ez dela bakarra, orain ari direla ondorioak ikusten. "Baina dena ahoz esaten didate, momentu oso puntualetan, gero isilik egoten dira... Oso berria da gaia, farmakobijilantzia hitza ere orain-txe ezagutu dut!".

Berria da gaia eta azaldu du egoera horretan dagoen pertsonak ere bere denbora behar duela gertatzen ari zaiona onartzen eta plazaratzen: "Uste dut beldur puntu bat ere badaukagula. Ez naiz ezer txarra egiten ari, ni ari naiz ondorioak jasaten, eta ematen du esplikazioak eta justifikazioak nik eman behar ditudala".

Behar den denbora hartuta, baina aurrera begira beharrezko ikusten du antzeko egoeran dauden pertsonak elkartzeko eta erantzukizunak eskatzeko: "Uste dut farmakobijilantziak bere erantzukizuna hartu beharko lukeela. Nori hartzen du ni horrela egotearen erantzukizuna? Hori lotu beharko dugu nola-bait, ezta?". ●

# *Esklabista etzanda, pintadez josita eta museoan sartuta nahi dute*

Colston kontzertu aretoa, Colston dorrea, Colston etorbidea, Colston kalea, Colston ospitalea, udaletxearen aurrean Colston monumentua, eliza bateko Colston bidriera, Colston eskolak, Colston zahar-etxeak, Colston opila... Hori dena Ingalaterrako Bristol hiritik atera gabe. Baina bristoldarrek nahikoa esan dute. Esklabista handienetako bati mende luzez hirian egindako zuriketari amaiera ematen hasi dira.

 AXIER LOPEZ



**B**ristolgo Edward Colstonen omenezko brontzezko estatua mundu osoan izan zen albiste, eraitsi eta bere jaioterriko itsasadarreraino dozenaka lagunek arrastaka eraman eta bota zutenean. 2020ko ekainaren 7an izan zen, Black Lives Matter-ek sustatutako protesten harira, AEBetako Poliziak George Floyd hil zuela eta.

Idulkia hortxe geratu zen, grafitiz josita. Estatua, berriz, egun batzuetara kaitik berreskuratu, biltegiratu eta museo batean ikusgai jarri zuten –posizio horizontalean eta manifestarien pintadaz beteta–, afrikar ondorengoen esklabotzaren historiari buruzko informazioarekin batera.

Ikur bilakatu da Colston esklabismoa eta kolonialismoa zuritzen dituzten sinboloekin zer egin galderaren aurrean. Eztabaida bizia piztu zen hirian, Ingalaterra osoan eta herrialde anglosaxoietan (AEB eta Australia kasu) gertatu den bezala, baina Bristolgo berezitasuna da batzorde ofizial bat eratu zutela gaia herritarrekin batera bideratzeko. Lan horri ekin zion 2020ko irailean sortutako We Are Bristol historia batzorde independenteak, nagusiki unibertsitateko adituekin osatutakoak. Bien bitartean, hikamikak kalean jarraitu zuen. Adibidez, Colston ikusgai zegoen museo blokeatzeko kanpaina abiatu zuen esklabistaren memoriaren aldeko talde batek ekainean; eta uztailean, Colstonen estatua zegoen lekuan Black Lives Matter-eko kide Jen Reid irudikatzen zuen estatua bat paratu zuen Marc Quinn artistak.

Otsailaren 3an amaitu da parte-hartze prozesua, We Are Bristol-ek egindako txostena argitaratzearekin batera. Bertan, herritarren iritzia jaso dituzte estatuaren etorkizunari eta haren idulkiari buruz.

13.984 lagunek eman dute iritzia, eta %74k esan du estatua museoan egotea nahi duela egun dituen grafitiekin, orain arte erakutsi den moduan. Halaber, estatuak eraitsi baino lehen espazio

## Esklabo publikoak

Colstonen kasua are polemikoagoa izan da jakitera eman zenean herritarrek pagatu dutela, Colstonen esklaboak aske uzteagatik, 1833an estatuak emandako kalte ordaina –esklaboak kentzea kapitala galtzea zelakoan–. Horrela egin dute ordutik, urtero-urtero, 2015eko otsailera arte. Hau da, esklabistei emandako dirua herritarren poltsikotik atera da, 182 urtez. Hego euskal herritarrok 1996tik Lemoizko zentral nuklearraren kostua Iberdrolari ordaindu diogun gisan, argindarraren fakturan ezarritako zerga baten bitartez. Eta hara non, geuk ere 2015ean bukatu genuen ordainketa hori.



Colstonen estatua bota ostean gisa horretan zegoen bere idulkia.

## Bertsio ofizialaren ifrentzua garaile

Estatua, jatorrian, XVII. mendeko “parlamentari eta filantropoaren” bizitza ohoratzeke eraiki zen, hirian, karitatearen bitartez, hainbat lan eta eskola egin baitzituen. Bo, hori da bertsio ofizialak dioena. Errealitatea da Colston Afrikako Errege Konpainiaren akzioduna izan zela, eta 84.000 afrikar ontziratu zituela esklabo gisa, horien artean 12.000 haur. Guztira, Colstonen enpresak “afrikar gehiago garraiatu zuen esklabotzara beste edozeinek baino, Ipar Atlantikoko esklabo-merkataritzaren historia osoan”. Baina azken datu hori ez duzu topatuko *Colston bun* opilaren bilgarrian.

publikoan zuen lekua artelanekin eta aldi baterako jarduerekin erabiltzea gomendatu dute, eta batzuetan hutsik gera dadila ere. Colston gorai patzen duten jatorrizko informazio-plakak bere horretan uztea adierazi dute, baina beste plaka bat gehituta, zeinak estatua lehen aldiz zergatik jarri zen hor eta noiz erretiratu zen azalduko duen, baita honako esaldi hau jasota utzi ere: "XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran, Colston gero eta gehiago jarri zen zalantzan, Afrikako pertsonen esklabotzan izan zuen ardura nabarmenagatik".

Bristolgo biztanleen %26k ez du estatua ikusi nahi hiriko museo batean. Horietatik, hiru laurdenak jatorrizko tokira, espazio publikora itzultzea nahi du, eta beste laurdenak estatua suntsitzea edo inon ez erakustea nahiago du.

Colstonen estatua eraitsi ostean sortu zen Save Our Statues (salba ditzagun gure estatuak) taldeak *The Washington Post* egunkariari adierazi dionez, "estatua bere egoera bandalikoan erakustea urrats probokatzailerak da, eta gerra kulturala baino ez du elikatzen". "Afera ez da Colston, lege eta printzipio kontua da", gaineratu du Robert Poll fundatzaileak.

### ESTATUA ERAISTEA BEGI ONEZ IKUSI DUTE

Estatua eraitsi izanaz duten iritzia ere galdetu die batzorde independenteak herritarrei: %56k sentimendu positiboa adierazi du eta %36k negatiboki ikusten du. Belaunaldi talka agerian geratu da gai horretan. Gazteak, oro har, Colston espazio publikotik kentzeko erabakiarekin bat etorri dira, eta zaharrenek (65etik gorakoak), aldiz, kontra. Adineko pertsona askok uste du errespetu handiagoa izan beharko litzatekeela legea eta tradizioarekiko, eta aldaketen erritmoa azkarregia dela. Batzordekideek harridura adierazi dute herritar beltzak, afrikarrak eta karibetarrak izan direlako –alde txikiarekin– eraispenaz iritzi positibo gutxien eman dutenak. Haien iruzkinak iradokitzen dute ez zaiela gustatu estatua botatzea legez kanpoko ekintzat hartu izana.

Herritarren ekarpen zehatzak ere jaso ditu txostenak. Pare bat adibide. Herritar batek adierazi du estatuaren inguruan hiria hain zatituta ikusten



BANKSY

## Egileak libre

Arrazakeriaren aurkako 21 eta 36 urte bitarteko lau aktibista, Rhian Graham, Jake Skuse, Sage Willoughby eta Milo Ponsford, *The Colston Four* deituak, akusatu zituzten estatua eraistez. Urtarrilean, hiriko epaitegi batean kalte penalgatik absolbitu egin dituzte. Lauek onartu zuten ekintzan parte hartu izana, monumentua lotsagabea eta gehiegizkoa zela argudiatuz, ezen "estatua bere horretan delitua baitzen". Auzipetuekiko elkartasun kanpainak babes asko eta anitza jaso zuen, herri mailan eta nazioartean. Askoren artean, sonatuenetako bat izan zen Bristolen jaiotako Banksy artista ezagunak egindakoa: isilpean, kamiseta batzuk diseinatu zituen lau kideen alde dirua biltzeko.

duenez, bitan zatitu beharko litzatekeela, estatuaren erdia museoan eta gainerakoa idulkian. Beste bristolarrak baten ekarpena ondorengoa izan da: estatua itzul dadila jatorrizko lekura, baina berriz eraitsi eta bota dezatela portura urtean behin, "erritual zibiko" berri bat sortuz.

Gizartearen iritzia ezagutzera eman ondoren, azken urratsa udalaren esku geratu da. Bristolgo gobernua Marvin Rees laborista afro-ondorengoko

gidatzen du, askoren harridurarako, oso jarrera epela erakutsi duena gaiaren inguruan. Apirilean erabakia hartu beharko du udalak batzordearen gomendioen gainean. Baina, edozelan ere, urrats aparta eman dute bristolarrak eurozentrismo neokolonialaren aurkako borroka kulturalen.

Euskal Herrian ere badugu zer ikasia Bristolgo prozesutik, gustatu ala ez, bertsio ofizialek zuritutako Colstonez josita baitaizkagu bazterrak. ●



# Egindako ekarpenari aitortza

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**M**ezenasgoaren gaia ez da berria ARGIAN, mahai gainean askotan egondakoa da. Errenta aitortpenean hobari fiskala lortzen du mezenasgoaren figurak eta ezaguna da kultur elkarteetako bazkideen artean, esaterako. 2021ean eman du ARGIAk pausoa eta Hego Euskal Herriko ARGIAko kideek proiektuari egindako beren ekarpenagatik hemendik aurrera hobari hori eskuratzeko aukera izango dute.

Euskararen esparruan lehenetsu-nezko mezenasgo jarduera izatea lortu du ARGIAk. Aitortza moduan ulertzen dugu hori, euskararen erabilera sozialari egiten dion ekarpenagatik. Egunero eta formatu desberdinetan (paperean, interneten, buletin bidez, eragilean plazan, podcast-etan...) euskara indartu eta euskaraz informatzeko eskubidea bermatzen du proiektu honek, kazetaritzaren esparrutik.

ARGIAren oinarrietan dagoen filosofiarekin eta baloreekin bat egiten du mezenasgo figurak. ARGIA ez baita produktu bat, proiektu bat baizik. Herri batean sinesten duen proiektua, ertzetako ahotsak erdira ekarri nahi dituen, parekidetasun errealean sinesten duena, euskaraz informazio

independentea, askotarikoa eta egiazkoa jasotzeko eskubidea bermatzeko lan egiten duena. Gai eta balore eraldatzaileak bultzatzen dituen herrigintzako eragilea da, eta hori babesten duena onura publiko bat egiten ari dela sinesten dugu.

Hego Euskal Herriko ARGIAko kideei, okerrik ezean, urteko errenta aitortpenean ARGIA babesteko jarritako diruaren ehuneko bat itzuliko zaie kultur proiektu bati eginiko hobari fiskal gisa. Kopurua lurraldez lurralde aldatzen da -Arabaren jarritako diruaren %30 jasoko dute; Gipuzkoan %35; Bizkaian %40; eta Nafarroan %80 lehenengo 150 euroetan, %40 ondorengoetan-. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herritarrek ez dute halakorik jasoko, oraingoan, nahiz eta ARGIA pausok ematen hasia den hiru lurralde hauetan ere aldaketa egiteko.

Pozik gaude gure komunitateko kideek egiten duten ekarpena kontuan hartuko delako. ARGIAren proiektua eta komunitatea indartzea da aldaketa honen helburua. Eta sekula ez gara aspertuko esateaz: eskerrik asko orain arte eta aurrerantzean ere proiektua babestu(ko) duzuen ARGIA jende guztiari. ●



## ‘Sendabelarrek dakitena’ liburuak bigarren argitaraldia

Garbiñe Larrearen liburua azaroan aurkeztu genuen Donostian. Geroztik ibilbide luzea egin du eta estimatua izan da oso irakurleen artean. Hala, 3.500 aleko lehen argitaraldiaren ostean jadanik kalean da bigarrena, eta ARGIAren Azokan daukazu salgai 25 euroan (azoka.argia.eus), baita ohiko salmenta gune eta liburu-dendetan ere.

*Sendabelarrek dakitena* liburuan 45 sendabelarren propietateak eza-gutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazioa eskaintzen du Larreak, 248 orrialdetan.



### AGENDA

## Zuloan

*Bidaia bat AHT eta lan-esplotazioan barrena*  
Urko Apaolazak liburuaz hitz egingo du Iruñeko AI-TAV-oz egunean:

 **Otsailaren 19an** 16:00etan

 **Iruñea** Plazara! gunean

## Bidean

*Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo*  
Koldo Rabadan Izagirre irakasleak liburua aurkeztuko du Olaberrian, kultur astearen baitan:

 **Martxoaren 11n** 17:00etan

 **Olaberria**



# ONDOKOA HIL ETA ALARGUNTZEKO, ALARGUNTSA-BELARRA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



**H**asieran nerbio-sistema zentrala kitzikatzen du, zeina gero, aldiz, lasaitu eta paralizatu egiten baita. Ahoz hartuta, mihian nolabaiteko inurritze sentazio bat sortzen du; nerbio periferikoak, hasiera batean kitzikatuak, gero sorgortu egiten dira. Xurgatutako kopurua nahikoa bada, gonbito larria eta buruko mina eragiten ditu, baita aurpegiaren zurbiltasun handia ere. Pultsua hautematea zailagoa gertatzen da, eta maiztu egiten da. Sudurreko mukosaren narriadura areagotu egiten da, eta askotan doministikuekin batera dator. Pultsua nahasi egiten da, eta ondoeza orokortu; hala, hotz-sentsazioa eta arnasestua izaten dira, eta behin eta berriz itozteko krisialdiak. Azkenean, sentimena galdu egiten da, gorputza paralizatu egiten da, eta orduan bakarrik, irabelarra irentsi eta lau edo bost ordura, konortea ere galduta, heriotza gertatzen da, bihotzeko edo arnas paraliysiagatik”.

Pio Font i Quer handiak 1961ean argitaratutako *Plantas medicinales, El Dioscórides renovado* liburu mardulean idatzitako irabelarrari (*Aconitum napellus*) buruzko testu argigarri eder honekin hasi nahi izan dut belar horri buruzko hau.

Jaume Rusell Fossasek, Ripoll eta Puigcerdako epaitegietako forentse eta Pirinioetako landare pozoitsuen ikerlari sonatuak, honela deskribatzen du irabelar hiltzailearen lana. Hartu eta hamar minuturen buruan, ahoa sutu eta bihotzerrea eta oka... Jariapena areago-

tzen du, gorputz osora azkar hedatzen diren bero sentazioa, hantura eta ziztadak; sentikortasun periferikoa nabarmen murrizten da, buruko mina eta izerdia. Arnas mugimenduak osatu ezinik, pultsuak indarra eta maiztasuna galtzen ditu. Modu depresiboan eragiten du gorputzean, eta nerbio-, burmuin-, bizkarrezur- eta bihotz-sisteman eragiten du. Batekoa da, bradikardia gaiztoa eragiten du eta taupadek behera egiten dute. Eta, 35-40 minutuan, hilda egon zaitezke.

Gure inguruko landaririk dotoreenetakoa eta era berean pozoitsuena da irabelarra; akonitina du landare osoak, gehiena sustrai lodikotean. Eskuetan hartu eta azaletik ere pozoitzen du. Akonitina miligramo bakar batek arazo larriak sortuko dizkigu, eta lauzpabostek hil egin. Konparaziorako, lan berdina gauzatzeko, 60 bat miligramo artseniko behar da.

Goi mendietan bizi da, batez ereazienda biltzen den artegietan, bordetan eta nitrogenoa eta materia organikoa pilatzen den inguruetan. Izen gehiago ere baditu gurean; “belar pozoiduna”, adibidez. Baita “otseri” eta “otseri-belar” ere: Pirinioetako istorio batek dio artzainek otsoekin burutu ezin eta haiek akabatzeko asto bat hil eta irabelarrez bete zutela; hurrengo egunean, inguruan azaldu ziren denak hilda. Alarguntsa-belarra ere esaten zaio, hemen aldamenekoa pozoitzen duena soilik emakumea balitz bezala... Egia da, gizasemeok jo eta zuzenean gure eskuekin hiltzen ditugu emazteak. ●

## IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba,

Limoiondo eta mandarinondo bana dauzkagu loreontzi handietan. Urtarrilean ale ugari eman dituzte, eta handi samar daude. Hori dela-eta, lurrera aldatzekotan gaude. Baina, halere, hainbat zalantza dauzkagu; izan ere, Berastegin bizi gara, Iztotzalde auzoan, eta izenak dioen bezala baserria leku laiotzean dugu. Merezki al du lurrera aldatzea? Hala balitz, non kokatu?

📍 Gurenda Serrano

Berastegin nahikoa lan izango dute garrazki horiek kanpoan bizitzeko. Batera edo bestera erabakitzeke, noski eguzki gehien izango duten tokira. Onena aterpe bat izatea da; izotza beti goitik behera etortzen da eta txapela moduko edozerk babestuko ditu. Bi aukera: 1.- Baratzean aterpe bat eraiki. Zurezko egitura bat negu partean plastiko garden batekin estaliko dena. 2.- Oraintxe dauden tokian lurrean zulotxo batzuk egin eta bertan landatu, teiltaturren babesean. ●

Bidali zure galdera:  
[bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus)

## AGROECOLOGICO2

# LANGABETUAK AGROEKOLOGIAN MURGILTZEKO IKASTAROAK ABIAN



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**N**afarroako Gosearen Aurkako Ekin-tzak abiatutako egitasmoa da AgroecologiCO2 ekintzailletza proiektua, eta Economias Bioregionales, Nhoalab eta Anaue elkarteak izan ditu lagun. Proiektuaren helburua simple bezain interesgarria da: Nafarroan langabezian dauden pertsonen agroekologiarekin lotutako negozio-ideiak garatzen laguntzea. Horretarako, doako ikastaroak egin dituzte; ekoizpenaren alorrari begirakoa izan zen antolatutako lehena, eta orain, berriz, eraldaketari dagokiona egingen dute. Otsailaren 14an hasi zen Iruñean egiten ari diren ikastaroa, eta adi, oraindik bada lekurik eta. Hori bai, klaseak gazteleraz izanen dira.

## IDEIETATIK PRAKTIKARA

Astelehenetik ostegunera, goiz osoko saioak egingen dituzte martxoaren 18ra arte. “Langabezian dagoen edonork agroekologiaren bueltan zerbait egiteko ideiarekin bat badu, tresna gehiago eskuratzeko aukera izanen du ikastaroan”, azaldu du Ione Andia Celaya Economias Bioregionales elkartereko kideak. Zerbait martxan jartzeko zalantzatan dabiltzan pertsonen behar duten bultzada ematea da asmoa, baina Andiak azpimarratzen duenez, gai horren bueltan ideia konkreturik ez duenak ere badu bere tokia ikastaroan. “Hasiberriak eta agroekologiarekin loturirik ez dutenak ere etor daitezke, noski”. Emakumeek lehenasuna dute.

Hiru ataletan banatuko da elikagaien eraldaketaren inguruko ikastaroa. Batetik, ikaskuntza komunitateen bidez hausnarketa eta jakintzen partekatzea egingen dute lau orduko hiru saiotan. “Sareak sortzeko, talde ikerketak egiteko eta sektoreko esperientziak partekatzeko helburua dute saiook”. Sektoreko hainbat ekintzaileren bisita ere izanen dute, haien esperientziatik ikasteko. Bigarren atala formazioarena da: eraldaketa prozesuei, tresneriari, ekintzailletzari eta bestelakoei lotutako kontuak landuko dituzte. Azkenik, behin ikastaroa



amaitutakoan, partaide bakoitzak banakako aholkularitza eta jarraipena izanen du bere proiektua garatu ahal izateko.

## EKOIZPEN AGROEKOLOGIKOA LANTZEN

Irizpide agroekologikoetan oinarrituta, eraldaketari lotuta antolatu duten ikastaro honen aurretik, ekoizpenaren alorreko abiatu zuten duela gutxi Azkoiainen. “Ikastaro hartan sumatu genuen bazegoela edozertan lan egiteko beharra zuelako hurbildu zen jendea, baina horiek bazutela gogoia ere. Bestetik, badaude gutxi batzuk lehenagotik baratzea lantzen ari zirenak eta gaiarekin oso motibatuak daudenak”. Pozik daude izandako erantzunarekin, batez ere, ikusita Azkoiainen erabilpenik gabe zeuden udalaren baratze sozial batzuk orain lantzen ari direla.

Lehen bi ikastaro hauen ondotik, formazio gehiago antolatzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu du Andiak, nahiz eta oraindik zehaztu gabe egon zertaz eta non izanen diren: “Pena da, oraindik gaiaren inguruan interes falta ere sumatzen delako. Askotan eskatzen ditugu horrelako gauzak martxan jartzea, baina gero, pena da izen ematean leku guztiak ez betetzea”. Interesa dutenek, informazio gehiago dute [vivesemprende.org](http://vivesemprende.org) webgunean. ●

## EUSKAL HERRIKO AGENDA

[www.bizibaratzea.eus](http://www.bizibaratzea.eus)



### Sendabelarrek dakitena

Garbiñe Larreak liburua aurkezteaz gain sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Otsailak 22** Ordua zehazteke.  
📍 **Iurreta** liburutegian.

🕒 **Martxoak 2** 19:00etan.  
📍 **Hernanin** Ereñotzu auzoan.

🕒 **Martxoak 11** 19:00etan.  
📍 **Ultzaman** Larraintzargo aretoan.



### Bizi baratzea

Jakoba Errekondok hitzaldia eta landareen kontsultategia egingo du.

🕒 **Otsailak 24** 17:00etan.  
📍 **Hendaia** Balea elkarte

### Zure herrian liburu hauen hitzaldia antolatu nahi?

Garbiñe Larreak sendabelarrez edo Jakoba Errekondok baratzeaz gakoak emango dituzten hitzaldirekin bat antolatu nahi baduzu, idatzi [bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus) helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

# Munduaren bukaera

## film baten bidez

Urtearen hasiera munduaren bukaerarekin abiatu zaigu. Fikzioan, diot. Netflix plataformaren ekoizpenak etxe askotara iritsi dira urtarril honetan; omicronpean itxialdian egon garen asko izan gara horien lekuko. Plataforma ugari dira, halere, egoera apokaliptiko eta postapokaliptikoak pantailaratzen ari direnak, eta merezi du tarte batez fenomenoari arreta jartzea.

✍ AINHOA GUTIERREZ DEL POZO 📷 ROBERT VIGLASKY

**I**nto *The Night* (2020), *El colapso* (2019), *La Valla* (2020), *Tribus de Europa* (2021), *#Alive* (2020), *Don't Look Up* (2021). Hamaika dira krisi ekosoziala literalki edo metaforikoki hartuta, urrunegi ez dagoen etorkizuna zientzia-fikzioz jantzi dutenak. Mota horretako filmak ez dira atzo asmatu, gogoangarriak baitira jada klasikoak diren *Armageddon* (1998) edo *The Day After Tomorrow* (2004). COVID-19aren pandemia bizi dugunetik, ordea, arruntagoa bihurtu da munduaren bukaeraz pentsatzea. Eta literatura edo zinema ere ez daude beste norabait begira.

Zientzia-fikzioaren ez-fikziotasuna ere aipatzen da azkenaldian: genero honetako filmak, egun, urrunago daude estralurtarren inbasiotik denok hilko gaituen birus baten agerpenetik baino. Badira oraindik gure bukaera dinosau-

roen patu berarekin alderatzen dutenak. Meteorito batekin denok hiltzea baino probableagoa da, ordea, lurra bizi ezin den planeta bihurtzea gure kabuz, jada egiten ari garen moduan. Eta ildo horretatik, munduaren amaieraren erretratuak kutsu politikoa hartzen du, ez baita gauza bera apokalipsira iristeko modu bat edo bestea. Orain gutxi ikusi nuen *Silent Night* (2021) filmak eragindako hausnarketetatik tiraka pentsa dezakegu honelako pelikulen efektuez.

*Silent Night* Camille Griffinek zuzendutako film luzea da, iazko urte amaieran estreinatutakoa. Bertan, apokalipsiari aurre egin behar dion mundua ageri da, egunerokotasunetik erretratatu. Munduaren amaiera da. Baina bitartean Gabonak ere badira, eta Erresuma Batuko landa eremuko etxe zoragarri batean bildu dira hainbat lagun. Lau bikotek

eta haur gutxi batzuek osatutako taldeak nahiago izan du ospakizunarekin jarraitu, Prosecco botilak bat bestearen atzetik edan, eta lasaitasunez bizi egoera. Halabeharrezko gizateriaren suntsiketari erreparatzea deserosoa zaie. Aitzitik, normaltasuna antzestu nahi duten arren, uneren batean aurre egin beharko diote ideia lazgarriari: euren azken gaua da.

Egoera pixkanaka deskribatzen da filmean, ez gara berehala ohartzen azkena gertu dela. Gurasoen arteko gezurrak eta giro txarra gizabidez ezkututzen dira. Halere, haurrek egoeraren aurrean ulertu dutenaren bidez eraikitzen da gertatzen ari denaren auzi morala. Beste herrialde batzuetan jendea sufriemenduz hiltzen ari da eta, hori saihestu asmoz, gobernuak pilula batzuk agindu dizkie erresumako biztanleei. Pilula



horiekin heriotza samurragoa izango da, minik gabea. Pilulak eskuratzea, ordea, ez da denentzako erraza izan: paperik gabekoek ez dute horiek lortzeko baimenik, ez baitira existitzen. Horren aurrean sortzen diren erreakzioak gizartearen moralaren inguruko gatazka etikoak dira, filmeko pasarte ugaritan gorpuztuko direnak. Heriotza airetik iritsiko den gas baten bitartez izango omen da, biharamunean. Hori gertatu aurretik hartu beharko dute denek pilula, sufritu nahi ez badute. Gero, beranduegi izango da.

### IRTENBIDERIK GABE

Oro har, film hauetan gehien kezkatzen nauena ahalduntze-diskurtsoen gabezia da. Normalki, imajina daitezkeen egoerarik gogorrenak irudikatzen dira, eta horrek sortzen dituen paradoxak. Egoe-

ra horiek, ordea, saihestezinak diren unean kokatzen dira, atzera bueltarik ez dagoenean. Horrek, beldur irrazionala eragiteaz gainera, ez du ekintzarako aukerarik ematen: "Arduragabeak izan gara, orain jaso dezagun merezitakoa", litzateke mezua. Eta horrek babesgabe uzten gaitu, salbazioa zein izan daitekeen galdezka. Jainkoa, Estatuia, salba gaitzazu. Ados nago, guk ez dugu mundua salbatuko. Baina Jainkoak edo Estatuak ere ez dute egingo. Geratzen zaigun aukera krisia etengabe kudeatzea da, *"staying with the trouble"*. Elkarren menpekoak diren espezieetako harremanen munduan logikoa den bezala, elkarri lotuta dagoen tximeleta-efektuen kate gisa. Munduaren bukaera jada izan da, eta izaten ari da. Hartzeko prest gauden ardurak dira definitu behar direnak.

Zein bortizki hilko garen irudikatzea

baino arduratsuagoa litzateke, nire us-tez, gure eskuetan dagoenari begira jartzea, gertatzen ari denari erreparatzea. Beste batzuk hil dira gure aurretik bortizki, eta hiltzen ari dira. Beste espezieei erreparatuta ere, askori amaitu zaizkie bizitzeko baldintzak eta aukerak. Beraz, krisi ekosoziala ezin da arerio-gerra gisa irudikatu, aldekoen eta kontrakoen gudu bezala. Ezin da kontua ulertu bizi garen planetak gure aurka prestatutako eraso gisa. Gizakiaren bakardadearen zaurgarritasuna irudika lezake zinemaren bitartez sortzen den iruditeriak, gizaki eta ez-gizakien aliantzen beharra, inguruarekiko banaezintasuna. Ez pentsatu "haiek edo gu", baizik eta nola kudeatu gure presentzia krisialdi be-tuan. Akaso, errealitatearen metafora falozentrikoak ez dira gai egoera ulertu eta irudikatzeko.





Film honek, era batean, beste filmetan errepikakorrek zaizkidan tabuak hausten ditu. Meteorito bat erortzeak dakarren erantzukizun eza (gaixoak gu) edo inbasio interplanetario baten suntsiketa (gaiztoak haiek) erraza-koak dira kokatzen beti-besteen-errua den errealtatearen interpretazioan. Gogorragoa da pentsatzea egin genezakeena ez dugula egiten, eta gurea dela ardura. Ez dugulako egin nahi, baina jakin ere ez dakigulako zer egin behar dugun. *Gutasuna* etsaiaren aurrean eraikitzen duten diskurtsoak errazagoak dira liseritzen.


---

*Zein bortizki hilko  
garen irudikatzea  
baino arduratsuagoa  
litzateke gure  
eskuetan dagoenari  
begira jartzea*

*Silent Night*-ek suizidio kolektiboaren gaia dakar lehen planora. Pasarte batean ama bi ari dira –pedagogiaren irudikapen gisa– haurrei gertatzen ari dena azaltzen. Haurren jakin-minari eta izuari erantzuten saiatzen diren arren, erantzukizuna gainetik kentzen ahalegintzen dira, azalpenak ematen erabat asmatu gabe. Hala diote: “Gogora ezazue, guk ez dugu errurik”. Haurrak ez daude hain seguru. Halere, esaldia ez dago norberaren pentsamendutik hain urrutiti, antza. Inorena ez den erruarengatik, ordea, denek hil behar dute eta, ondorioz, denek egin behar dute beren buruaz beste. Suizidioaren tabuak garrantzia hartzen du hemen, sufrimendu irrazionalaren aurrean legeztatzen den pilularen bitartez.

*Black Mirror* fenomenoaren aurrean, bi erantzunak dira koldarrak: bata, “jada ezin da ezer egin, beraz egizue nahi duzuen”; bestea, berriz, salbazio heroikoa. Ondorengo filmek landu gabe geratzen ari den ekintzarako deia hariari begiratu beharko diote... ●

# David Moore errege ezkontzaren itzalean



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**L**iverpool (Erresuma Batua), 1981eko uztailearen 28a. David Moore 23 urteko gaztea Toxteth auzoko kaleetan zebilen, lagunekin geratuta zegoelako. Falkner Square ingurua sutan zegoen eta polizia protestariak sakabanatzen saiatzen ari zen. Baina inor gutxi zegoen Toxtetheko liskarrei begira.

Gau hartan, handik 250 kilometrora bestelako suak piztu ziren Londresko zeruan. Biharamunean Karlos Galesko printzea eta Diana Spencer ezkonduko ziren eta, ospakizunen artean, su artifizialen ikuskizuna antolatu zuten. Milioi erdi pertsona inguru bildu ziren Hyde Parken suak ikusteko.

Margaret Thatcherren kabinetearentzat distrazio bikaina izan zen hura, ezkontzaren distirak zabalik zeuzkan fronteak itzaltzeko balio izan ziolako, tarte batean behintzat. Irlandan IRAko gose grebalarien egoera larria zen. 28an bertan Gerry Adams grebalarien senitartekoekin bildu zen, heriotza gehiago saihesteko ahaleginean. Thatcherren erantzuna: heriotzen erantzule bakarra IRA bera zen.

Horrez gain, Erresuma Batua industria krisi larrian murgilduta zegoen. Langabezia eta pobrezia datuak bereziki larriak ziren Merseyside eskualdean, Liverpool hirian eta, bereziki, Toxteth auzoan. Ez da harritzekoa uztailearen hasieratik istiluek auzoko kaleak hartu



Liverpooletako Toxteth auzoko liskarrak eta Karlos Galesko printzearen eta Diana Espencerren ezkontza, biak 1981eko uztailean.

izana. Thatcherren erantzuna: polizia-  
ren errepresioa.

David Moorek desgaitasun bat zuen; herrena zen. Polizien Land Roverra Falkner Square sartu zenean, ez zen ihes egiteko gai izan. Autoak Moore harrapatu eta berehala anbulantzia iritsi zen, baina, iskanbila betean, zaila zen ospitalera iristea. David Sullivan anbulantziako gidariak gerora esan zuenez, “ahalik eta azkarren ospitalera eramaten saiatu ginen, baina ez genuen lortu”. David Moore bidean hil zen.

Biharamunean, 600.000 pertsona baino gehiago bildu zen Londresko

kaleetan ezkontza bertatik bertara jarraitzeko. Telebistaren bidez, mundu osoan, 750 milioi pertsonak ikusi zuen ekitaldia zuzenean.

40 urte eta gero, milioika pertsona dago oraindik Buckinghamera begira. Britainiar errege familiaren gora-beherak kontatzen dituen *The Crown* telesaila azken urteotako arrakastatsuenetakoa da, eta Kristen Stewart aktoreak Oscar saria irabazteko izendapena jaso berri du *Spencer* (Pablo Larrain, 2021) filman Dianaren rola jokatzeagatik. Baina inork ez du David Moore gogoan. ●


LIVERPOOL ECHO / JAYNE FINCHER



## Egiptoar umekia eskabetxean

Dama Misteriotsua duela 2.100 urte inguruko emakume haurdun baten momia da, eta harri buruz beste ezer gutxi dakigulako ipini zioten izena. Iragan apirillean deskubritu zuten Varsoviako Momiaren proiektuko ikerlariak barruan fetu bat zegoela, eta lehen aldia da egiptoar momia baten barruan halakorik aurkitu dena. Baina nolatan

kontserbatu da fetua hainbeste denboran? Momifikazio prozesuan, beste organoekin batera ez zioten kendu eta ez zen usteldu. Ikerlarien hitzetan, “ozpinetan ondutako pepinoak bezala” kontserbatu da. Emakumea hiltzean barruan sortu zen inguruko azidoak “eskabetxatu” zuen eta baltsamatzeak lehortu. ●



ALEKSANDER LEYDO/WARSAW MUMMY PROJECT



LIBURUA

# Irisetik begira



DON USNER

**BASAIRISA**  
**LOUISE GLÜCK**  
**ITZULPENA: GARAZI UGALDE**  
 ELKAR, 2021

**AINHOA ALDABAL GALLASTEGUI**

**L**iburu honen jatorrizko bertsoa 1992. urtekoa da eta 2020an Louise Glück idazleak Nobel Saria jaso ostean ekarri du Garazi Ugaldek euskarara lehen aldiz.

Poema liburua irakurri aurretik itzultzailearen hitzaurrearekin egingo dugu topo. Asko eskertu ditut bere aipamen, gomendio eta irakurketa klabe batzuk: “iris” hitzaren esanahi eta dimensio ugariak, bereziki, begirada zabaltzen lagundu baitidate.

Aurkibidea begiratzuz gero hiru azpiatal bereiz ditzakegu, sarreran Ugaldek adierazi moduan: batetik, landareen izena daramaten poemek osatua, zeinak gehienak guztiz ezezagunak egin zaizkidan. Kasu horietan ahots poetikoa landareena da, eta beraien buruaz hitz egiten dute (21. orrian, “esnatu nintzanean baso batean nengo”) edota beste norbaiti zuzenduz,

–guri?–, (41. orrian: “Halako gorrotoa badidazu ez hartu lanik ni izendatzen”).

Beste poema batzuek momentu edo denbora jakin batzuen izena hartzen dute. Horietan ahotsa orojakile eta autoritarioa da, eta tonuak aginduzkoa dirudi. Bigarren pertsonaren pluralari zuzentzen zaio ahotsa, edonoren gainetik hitz egiten ariko balitz bezala (39. orrian: “Jakín ezazue, ordea, besterik espero nuela adimena eman zaien bi izakirengandik”; 54. orrian: “Ez zintuztedan sortu bakarrak izateko”). Itzultzaileak jainko zerutarren ahotsa aipatu du sarreran eta lagungarria egin zait bere aipatean.


Beste poemei *Bezperak* eta *Matutiak* deitzen die Glückek. Matutiak goizeko errezoak dira, eta Bezperak ere errezoak egiten omen diete erreferentzia. Orokorrean, esaldi luzexekoak erabil-

tzen ditu eta narratiboagoak bihurtzen dira poemok.

Osotasuna emate aldera Glückek hiru ezaugarri estilistiko erabili dituela uste dut: bata eremu semantikoa landareetan zentratzea. Bestea, galdera erretorikoena. Nabarmena da asko erabiltzen dituela, irakurlea bera interpellatuz. Eta, azkena, irudi boteretsuak darabiltzala (61. orrian, “zuhaitz biluzian barna doan argi distirinta”).

Orain arte idatzi dudan liburu kritikarik zailena izan da. Aitortu behar dizuet poema batzuk behin eta berriz irakurri ta ere zerbait galtzen ari nintzelako irudipena izan dudala. Nire buruari gogorazi behar izan diot dena ulertu gabe ere goza daitekeela irakurketaz eta horixe egin dut: Louise Glück estatubatuarren iradokitzen dituen irudiei nire irisean sartzen utzi diet, eta tarteka suzko erroberak ikusten ari nintzela iruditu zait. ●





MUSIKA

# Berrasmatu eta hazi



JON IRAUNDEGI

**IKER BARANDIARAN**


**E**gunen batean bizitza mila modutan baldintzatu digun fenomenoak bukatuko balitz, hasi ahal izango ginateke –kristauak egin ohi zuten trazar- urteak pandemia aurretik (p.a.) eta ondoren (p.o.) zenbatzen. Bada, gogoan daukat aspaldi (p.a. jakina!) gure artean ez dagoen Gaizka lankide eta laguna zenak Willis Galdea Oñatin deskubritu eta diskoa –haien lehena– ekarri zidala. Soinu gordina zeukan, findu gabekoa, baina a zer emaitza! Fugaziren pareko irmotasun eta intentsitatea, hard-rockaren (AC-DC?) soltura eta gitarrak, eta euskaraz galantki eta sentimenduz abestua.

Gerora askotan ikusi eta entzun ditut, eta gozatu ditut haien kontzertuak. Taldea dotorea da ezberrik gabe, ezaugarri

on asko ditu. Gero eta harrera beroagoa, merezitakoa, erdietsi zuten, eta horren ondorioz heldu zen puntu bat non, sentzazioa dut, taldekideak arraro sentitu zirela. Estutasun hura gainditu eta aurrera egin zuten, baina azken urteotan zerbait zuten faltan, freskotasuna agian.

Eta, hara!, aulki eta maskaradun kontzertu arraro horietako batean Oñatin (berriro!) sartu ahala pentsatu nuen penaz “akustikoan?”. Bada, berehala emanaldian barneratu ninduten eta izugarri gozatu nuen: a zer berrirakurketa! Jurgi Ekiza, Xan Bidegain, Felix Buff eta Vincent Bestaven –fitxaketa berria– haien kantutegia berridazten oso-oso modu dotore eta zainduan.

Badira Willis Drummond bakarrik elektrikoan maite dutenak, baina nire



## GARAI BEREZIENDAKO KONTZERTU BEREZIA

**WILLIS DRUMMOND**

TABULA RASA, 2021

ustetan proposamen berri honetan erabat berretsi dute kanta bat ona bada biluzik ere hala dela egiaztatzen duen ustea. Eta biluzik baino, distortsiorik gabekoa zehaztu beharko nuke, kantak ñabardura askorekin janzten dituzte-eta.

Kantek beste tempo bat hartzen dute, bakoitzak berea; folka, *americana* delakoa eta rocka oso zentzu zabalean, 70eko hamarkadakoa ere. Ekizaren ahots ederra are gehiago nabarmen-tzen da, eta Iparraldeko eskolari jarraituta besteen ahotsek ere pisua hartzen dute. Bada tentsioa, bada melodia ugari eta bada detaile zaindu asko.

Nire ustez emaitza izugarria da, eta asko poztzen nau kontzertu berezi horietako bat –15 kantakoa– diskora ekarri izanak. ●



# Sugarra gaztetxea sutan

 AMETS ARANGUREN

Ostiral eguerdia da eta laneko ordenagailua itzaltzen ari naizelarik ikusi dudana *Euskal musika ez-tristea* karpetak, irribarrea ateratzeaz gain, gogorarazi dit zita dugula iluntzean Sugarra gaztetxean, Lizarran. *Omen kolektiboak* bigarren aldiz joko du publiko aitzinean, bigarren aldiz Lizarrako gaztetxean.

Gaur izen horren atzean topatu ditugu tronboia, saxo tenorra, tronpeta, bateria, baxua eta gitarra. Amets, Aitor, Julen, Ander, Beñat eta Iban. *Omen kolektibo* gisa oholtza gainean bigarrenaz ariko badira ere, ongi ezagutzen dute elkar sei musikariek. Denak dira Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriotik pasatakoak, nahiz eta bi jaioterrira itzuli eta hirugarren bat ESMUC-ek fitxatu duen (lapurtu digun).

Kideetako bakoitzak bere aldetik bes-telako proiektutan parte hartzen edo hartu izan duen arren (Jahgoikoa eta regaezarra, Herdoil, Broken Brothers Brass

Band, Audience, Joseba Tapia, Sustrajah Band...), jazzaren munduan ibiltzen da seikotea. Bada kezkatzen dituen afera bat: ibiltzen diren giroan, giro herrikoian, ez dago jazz musikari gazte eta euskaldun gisa aritzeko espaziorik. Betiko *standard*-etatik harago, haien konposizioak jotzen dituzte gehienbat. Amets Arzallusen eta Ibrahim Balderen *Miñan* liburuko istorioa oinarri harturik egin ditu piezak Anderrek. Oskorriren *Udaberriko lora ederra* ezpata-dantza da Aitorren konposizioetako baten ohe, alboka eta guzti. Julenen *Tarima kendu* ere entzun dugu. Hirukote formatuan aritu dira Beñaten kantan, haizerik ez. Bakoitzaren kantek euren instrumentua jartzen dute erdigunean eta Beñaten honek gogorarazi dit, nahi izanez gero, baxua ere instrumentu melodikoa izan daitekeela. Ander García kontrabaxu jotzailearen *Liliak ihes* kanta ederraren bertsioa ere eman dute: "Kantu hau diot opari, entzungo nauzun horri, lur oparoari...", sei bozak *a capella*.

## OMEN KOLEKTIBOA

**NON:** Lizarrako Sugarra gaztetxea


**NOIZ:** Urtarrilak 28

Julen izan da emanaldiaren gidari, nabari da etxean dela "Kintxo eta María Puyren semea". Ez dakit puntu berdeekin jendea kontaktzen duen programa hori erabiltzen, baina ehun bat pertsona bildu garela esanen nuke (kontuan izanda beti zenbatzen dela gorantz borobilduz). Pagatu ditugun bina euroak Arrotxapeako gaztetxeak jasotako azken isunak pagatzera bideratuko ditu taldeak. *Omen kolektibo* kolektibo omen, esan nahi baita, gaurkoan seikote gisa agertu den taldea boskote edo zortzikote izan daiteke heldu den aldian eta ez dute zertan gaurko berberak izan.

Txoritxo batek esan dit hari batzuk hasi direla mugitzen hirugarren emanaldia Lizarran izan ez dadin eta aurreratu dezaket laugarren bat ere bidean dela... Nik ez nuke galduko eta ez da (bakarrik) nire lagunak direlako. Benga, Euskal Herria, musika ez-triste pixka bat, asko dugu eta konpentsatzeko. ●



# Hitz geizidunak

OHITU ADOS		ERRUSIAKO HERRITAR ZAKUR		AUTOMOBIL GIDARIDUN		IZANA ADIERAZTEKO PARTIKULA TXERRI EME		URTZEN DENA PERTSO- NAIAREN ABIZENA		AIAKO HERRITARRA EUSKALKI
ZEHEA EGOKI						IRTEENA INTSEKTU MOTA				
		ABEREA UKATZEKO IDATZIZ			HURBIL NAFARROAKO HERRIA	EAKO HERRITA- RRAK ARKATZ				
EZAGUTZEN DENA EZKU- TATZEA GUZTI							ALOR, EREMU LEHEN AIPATUTAKO			
				UHolDE JATORRIA, BELAUNALDIA				EUSKO ALKARTA- SUNA ALDEZ AURRETIK		
BAIEZTATU	KARRIKA ZOROKI, ERA ERO BATEZ				ZATIAK, OSAGAIK PERTSO- NAIAREN IZENA					NAFARROAKO HERRIA
						GORABEHE- RAK KENDU NAFARROAKO URTEGIA				
NORI ATZIZKIA ERRU, AKATS		IZAERA, ESENTZIA EGUZKI						EDARI ALKOHOLDUN OSATU ADITZAREN ERROA		
				IZUTI ESTRON- TZIOAREN IKURRA						500 ERROMA- TARRA UGARITASUN ATZIZKIA
ARKAKUSO BIZIRIK IRAUNARAZI					GOSE HANDIA DUENA AZKEN LETRA					
								EGITE TXAR		

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

				1				
	7			4		2	8	
3		2			5	9		7
	2		7	9	3		5	
			5					
	8			1		4		9
8				3	4		9	
		9		2	7	8	6	
		1		8	6	3	7	4

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kasa, kontura.
2. Aurpegi, begitarate.
3. Ikasketarako dirulaguntzak.
4. Oparo.
5. Zikinkeriak dituena.


## EBAZPENAK

2	5	1	9	8	8	6	5	5	2
4	3	6	5	2	7	8	7	6	1
8	6	7	1	3	4	5	9	2	
7	8	5	6	1	2	4	3	9	
9	1	3	4	5	8	7	2	6	
6	2	4	7	9	3	1	5	8	
3	4	2	8	6	5	9	1	7	
1	7	6	3	4	9	2	8	5	
5	9	8	2	7	1	6	4	3	

1. KABUZ
2. ABEGI
3. BEKAK
4. UGARAI
5. ZIKIN

## 5x5S

B	I	Z	V	I	Z	V	V	I	Z	B	I	Z	B
I	O	Z	V	I	Z	V	V	I	Z	B	I	Z	B
I	O	Z	V	I	Z	V	V	I	Z	B	I	Z	B
D													
N	O	R	O	V	A	T	E	Z	I	R	I	R	I
T	U	U	T	U	L	V	T	S	I	R	R	R	E
K													
V													
O													
K	V	O	K	V	E	H	X	U	V	N	O		
I	V	A	V	A	I	L	K	I	V	A			
V													

# Maria Francisca Mas

ESKALATZAILEA



## ESKALADA POLITIKOA DA

"Ikerketa Feministak eta Genero-koak Masterreko amaierako lan gisa hasi zen proiektua eta unibertsitatetik at jarraitu nuen. Emakumeak ikusarazi nahi ditut, beste batzuek erreferenteak izan ditzaten eta bizipen horiekin identifikatzeko aukera izan dezaten. Liburu honek sarerik ez dutenen artean elkar ezagutzeko eta eskalatzeko talde berriak sortzeko abagunea izateko aitzakia ere izan nahi du, espazio seguruak sortzeko nahiarekin".

## "Eskalada ulertzeko eta praktikatzeko modua aldatzen du kordada feministak"

Eskalada bizitzeko hamaika modu dago. Lehiatik haratago, eskaladaren alde emozionala islatu du Maria Francisca Mas Rierak (Mallorca, Herrialde Katalanak, 1993) kaleratu berri duen liburuan; *Escalantes (Eskalatzailleak; Gehiago Edicions, DDT Liburuak, 2021)*. Ikuspegi feministatik abiatuta, adin, testuinguru eta jatorri desberdineko hogeit hamar emakumeren bizipenak eta hausnarketak bildu ditu.

 LEIRE REGADAS  HODEI TORRES

### Lehenik eta behin, zer da zuretzat eskalada?

Niretzat ihesaldia da, egunerokotasunetik irteteko aitzakia, hiritik ateratzeko eta naturarekin konektatzeko. Ez dut kiroltzat hartzen, ez dut eskalatzeko entrenatzeko ezta lehiatzeko ere, atsegin dudalako baizik. Egoera azaltzea bitxia da, arrisku egoeratan jartzen zaituelako eskaladak; beldurra sentitzen duzu batzuetan, kontzentrazioa eskatzen duen jardura da. Baina nik aukeratzen ditudan erronkak direnez, eta ez inposatuak, motibatzen naute.

### Hogeit hamar eskalatzaileraren testigantzak batu dituzu liburu honetan, hogeit hamar emakumeren bizipenek eta gogoetek osatzen dute kontakizuna. Zer dute amankomunean?

Eskalada euren bizitzan eta identitateen parte den hein berean, denek pairatu dute horri lotutako indarkeria motaren bat. Ez dira sentitu egiten ari zirenen protagonista, beraien ikuspuntuak ez dira kontuan hartuak izan, edo, emakume iza-

teagatik ez zaie bide bat irekitzeko aukera eman. Amatasunaren gaia ere agertu da elkarrizketetan. Nola emakume eta ama izanda arrisku jardura bat egiteagatik epaitzen gaituzten, gure erabakiak nola jartzen diren zalantzan...

### Oro har, genero rolak eta botere harremanak gorpuzten dira.

Bizitzaren beste esparru batzuetan bezala horiek erreproduzitzen dira hemen ere. Baina, aldi berean, genero rolak edo estereotipoak deseraiki ditzake eskaladak. Emakumeak historikoki subjektu ahul gisa agertu dira, eta jardura honek ausarta eta indartsua izatea eskatzen ditu; ez hainbeste fisikoki, baizik eta, batez ere, mentalki. Zalantzan jartzen ditu "biologikoki" eta ez zuzenki esleitu zaizkigun kategoriaz horiek. Eskaladak ikuspuntua zabaltzen lagun diezazuke, baina ez dut uste kirolaren beraren bertutea denik, pertsonarena eta bere inguruarena baizik. Esaterako, bikote heterosexualean arteko kordadetan harreman toxikoak eta tratatu paternalistak eman ohi dira.



“Berdinen arteko taldeetan eskalatu arte, ez zaituzte bide bat irekitzeko beste baloratzen”

**Garrantzi berezia du laguntzen zaituen kideak; soka eusten duena zu eusten zaituena baita, fisikoki zein emozionalki. Zerk bereizten du kordada feminista?**

Dena aldatzen duen inflexio puntua da; eskalada ulertzeko eta praktikatzeko modua aldatzen da guztiz, baina, batez ere, eskalatzeko ari naizenean nola sentitzen naizen. Emakumeekin edo identitate ez bitarra dutenekin eskalatzeko, ez dira hain azalekoak genero rola eta hierarkiak. Antzeko egoerak bizi izan dituztenen artean ulermena handiagoa da. Kordada feministetan ez dira gertatzen gizonezkoekin bizi izan ditugunak. Inork ez du inor behartzen nahi ez duen zerbait egitera, beldurrei aurre egiten laguntzen dizute eta animatzen zaituzte, eroso eta babestuta sentitzen zara eta ez presionatua. Emakumeen arteko lehiatik laguntasunerako bidea ere bada, konfiantzan oinarritua.

**Azpimarratu duzunez, diziiplina honetan egoera fisikoa garrantzitsua bada ere erabakigarria da faktore psikologikoa. Irururtiaren sindromea izan duzu noizbait?**

Askotan gutxiesten gaituzte, eta beste hainbatetan gure burua gutxiesten dugu. Berdinen arteko taldeetan eskalatu arte, ez zaituzte bide bat irekitzeko beste baloratzen. Emozio asko sartzen dira jokoan, oso garrantzitsua da sokaren atzean nor dagoen. Pertsona horrek zurekiko onpatiarik badu, bideetan laguntzen bazaitu, babesa ematen badizu eta konfiantza ematen badizu, irururtiaren sindrome hori ez da agertuko. Aldiz, beste pertsona guztiz kontrakoa bada, berak sabotatuko zaitu eta zuk ere sabotatuko duzu zure burua.

**Besteek nola pertzibitzen gaituzten baino, autoestimuaekin lotura zuzena du, beraz.**

Guztiz, eta esango nuke gero eta errazagoa dela autoestimua hori lantzea, gero eta emakume erreferente gehiago dagoelako. Horregatik idatzi dut liburua. Nire helburua esperientzia zehatzak ikusaraztea eta eskaladaren alde emozionala erakustea da. Eskaladaren beste erpin bat jorratzea, antzeko bizi-penak, beldurrak eta zalantzak dituztenek horiekin identifikatzeko aukera izan dezaten.

**Liburuan emakumeen sexualizazioa ere aipatzen da. Kanpotik dator batzuetan, baina beste batzuetan guk geuk elikatzen dugu.**

Eremu bateko emakume bakarra izateak ahalduzera bultzatzen gaitu, batzuetan, kapital sexual gisa, hitzurrean Olgak azaltzen duenez. Sare sozialetan antzeman dut hori, batez ere. Instagramen ikusten ditudan argazkietan emakume eskalatzailen erdia erabat sexualizatuta agertzen da. Gogoan dut bat, non emakumeak hanka batean botak eta kranpoiak zituen eta bestean takoiak. Nekatuta nago emakume biluzi baten argazki tipikoa ere ikusteaz, soka batez inguratuta.

**Erpin desberdinak jorratzen ditu liburuak, beraz. Gehiago Edicions zigilua sortu duzu argitaratzeko; lanak jarraipena izango duela esan nahi du horrek?**

Haurrentzako liburu bat egiteko asmoa dut, eta ikus-entzunezko lanen bat egitea gustatuko litzaidake, dokumental labur bat. Ideiak baditut, baina momentuz liburuaren aurkezpenekin jarraituko dut, hau guztia ematen ari denaz gozatzen. ●

# Otsaila

## A plagiarised tribute to Kevin Killeen

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**O**tsaila da urteko hilabete-rik txarrena, baina hilabete zintzoa da, ez du bizitza erakusten benetan dena baino politago. Alegia, begiratu ingurura, eraikin hauei: ematen du ez daukatela argi bakar bat ere lanegunak irauten duen bitartean; badirudi hemen zerbait ederra gertatu zela, baina bukatu dela. Eta horrelakoxea da otsaila. Ikusten duzu jendearen ibilera, ze itxura duten eta... goazen, goazen begiratzera otsaila nolakoa den.

Zaborretan botatako aterki horrek dena esaten du. Udaberriko diseinua dauka, lore-itxurakoa, baina norbaitek, otsaileko egun honetan, abandonatu egin du bere kirten puskatuarekin, jada benetakoa ez den desesperatutako maitasun-kontu baten amaieran bezala. Espedizioa etsigarri bihurtzen ari da, jendea gauzak bazterretara botatzen hasi da.

Begiratu hiriaren erdialdeari otsaileko lanegun batean. Daukan itxurak gogora ekartzen du leku bat, nora bidaliko luketen zerbaitengatik zigortu duten jendea. Otsailean jendeak kalea nola gurutzatzen duen ikusten baduzu, oso desberdina da udako hilabeteekin konparatuta: inork ez du klakerik dantzatzen, inor ez da ari Eganen *Mexiko* kantatzen. Bazkalordua da eta justu-justu dira gai beste espaloiraino iristeko, lurruna darion babarrun-plater baten gainera makurtzeko.

Karbohidratoak garrantzitsuak dira urte-sasoi honetan. Kremak ere bai, mundu guztiak azkura baitauka, eta nekatuta dago, eta haserre.

Lurra bera ere nekatuta dago otsailean. Normalean ikus ditzakezun txori gehienak Andaluziara joanak dira eta inoiz poztu gintuzten zuhaitzei begira-



Kevin Killeen, bere *February* maisulaneko une batean.

tzea ere gogorra da hilabete honetan. Badirudi nolabaiteko egia ikaragarriren bat dagoela hor, zuhaitz horietan; adarretan gordeta dago, begira: denbora luzez enbarazu egin dizun zerbait dago hor. Zer da? Ia ikusi egin dezakezu daukan forma, kolore guztia joan denean, bizitza bere adierazpen minimoetan dagoenean, otsaileko gordintasunean.

Otsaileko desolazioa ezkutatu nahian, gizakiak inauteriak asmatu zituen. Baina otsailak kolpea itzuli zuen hausterre-egunarekin: ze beste hila-betetan ospa daiteke zerbait, diseinatua dagoena gogorarazteko guztiok hil egingo garela? Hori da otsaila: goibela, zintzoa; eta ezer ezkutatu gabe esaten dizu nolakoa den benetan.

Nire aitak esan ohi zuen, otsailari eusteko gai bazara, beste urte batez biziko zarela.

Bueno, ez, hori ez zuen nire aitak esaten, Kevin Killeen kazetariarenak baizik. Baina hain da deprimentea otsaila, hain nago abailduta hilabete honen erdia – erdia besterik ez – jasan ondoren, aste honetako artikulua %83 kopiai dudala, moldaketa txiki batzuekin, St. Louiseko (AEB) KMOX kateko profesional horrek duela sei urte argitaratu zuen pieza batetik, zeinak bi minutu pasatxoarekin, gutako gehienon karrera periodistikoak baino gehiago balio duen; zeinak justifikatzen duen telebista asmatu izana bera ere, giza-kondizioaren egia absolutu eta ukaezin bat erakutsi digulako –ez galdu originala, mesedez: <https://labur.eus/KevinKilleen->.


Plagio hutsa, esango duzue. Ba bai, hala izango da: ez daukat indarrik, ezta defendatzeko omenaldi gisa egin dudala ere. Benetan, buka dadila hilabete hau. ●

# XAPOKETAN

## PUZZLEA

*Euskal Herriko ekosistemak eta animaliak ezagutzeko 100 piezako puzzlea*

**Iñaki Sanz eta Eñaut Aiertzagüena**



Gure artean zein ugaztun, hegazti, arrain, anfibio, narrasti eta ornogabe bizi diren eta zehazki non aurkitu ditzakegun ikasiko dugu. Gainera, Euskal Herriko zazpi ekosistemak biltzen dituen liburuxka gehitu dugu.

**PUZZLEAREN NEURRIA: 43 x 27 zm**



**15€**

+ 4 € bidalketa gastua.  
40 €tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

2. argitaraldia



# Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea

248 orrialde

25€

+ 4€  
bidalketa  
gastuak

40€-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.



azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik 08:00etatik 15:00etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

ARGIA

BIZI BARATZEA